

# Etxarri-Aranazko leku-izenak

JOSÉ LUIS ERDOZIA MAULEÓN\*

Lan hau egin ahal izateko, ezinbestekoa suertatu da herriko toponimian adituak diren hainbat etxarriarren laguntza. Lau larunbatez bildu ginen Udaberri Elkartean lau orduko saioak burutuz bakoitzean, herriko dermioko toponimo ahalik eta gehienak bildu eta mapan kokatzeko asmotan. Oso baliagarria izan da, era berean, aurretik **Rafael Karasatorre Bidaurrek** egina zuen bilketa-lan mardula, berak emandako zerrendak izugarri erraztu baitu lanaren zehazpena. Ez ditugu berak emandako toponimo guztiak ipini, gure informanteek ez zituztelako batzuk ezagutzen; eta berak jaso gabe zituen beste batzuk, berriz, jaso ditugu egungo ezaguerara lotu nahi izan baitugu esku artean duzuen lana, garbi utziz egungo ezaguera hauxe, aipatuko ditugun adituen ezagueraren isla baino ez dela. Hala ere, zail deritzogu beste adituen baten emaitza oso desberdinak ateratzeari, hainbat etxetan egindako kontrasteek horixe bera adierazten baitigute.

Horrela beraz, ondorengoak izan ditugu adituen taldeko berriemak:

- Anbruxio Erdozia (80 urte), “Mextrubeneko etxe”-koa, oso txikitatik basoan ibilitakoa, ahuntzain eta ikazkin.
- Esteban Mundiñano (71 urte), “Xakonan etxe”-koa, aurrekoa bezala ibilitakoa.
- Pello Artieda (52 urte), “Barbazoneko etxe”-koa, egungo basozaina.
- Jexux Razkin (43 urte), “Zapatañeneko etxe”-koa, ehiztaria eta basozale amorratua, adineko hainbat herritarrekin ikasi ditu leku-izenak, besteak beste, aurreko basozainarekin, gure aita zen Inazioarekin.

Eta kontraste lanetan lagundu digutenak, berriz:

- Domingo Lakuntza (79 urte), Bekola baserrikoa.
- Serafin Lasa (75 urte), Goikola baserrikoa.
- Basilio Arruabarrena (71 urte), ‘Sakristuzarran etxe’-koa, dermiozaina izandakoa.
- Felipe Karrera (57 urte), txikitan ahuntzain ibilitakoa.

\* Ertainetako irakaslea.

- Juan Flores (74 urte) eta Mercedes Lazkoz (70 urte) senar-emazteak, Lizarragabengoa. Hauen semea den Patxik jaso ditu Lizarragabengoa-ko toponimoak.
- Fermin Razkin (50 urte), “Kaleko Anttonion etxe”-koa.
- Fernando Albarrazin (79 urte), “Baleztena” etxekoa.
- Domingo eta Juanito Erdozia (59 eta 57 urte), “Inazio guarda”-ren semeak.

Ez genuke aipatu gabe utzi nahi **Joakin Anso Urmeneta**, aparejadorea bera, eta ezinbesteko suertatu dena toponimoak mapetan kokatzeko orduan, eta baita bide, erreka eta gainerakoen kasuan, pazientzia handiz egon baita saio guztietan toponimo bakoitza leku egokian kokatu nahirik.

Aipatutakoaz gain, ondorengo materialak erabili behar izan ditugu lantxo hau gauzatzeko orduan:

- Karasatorre, Rafael, *Barranca-Burunda*, 1993. BB iruzkinetako aipamenetan.
- Tracasa, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza XII*, 1995. NTM moduan aipatuko dugu gure iruzkinetan, eta bertan ageri diren burutzapen dokumentatu guztiak jasoko ditugu.
- Arañaz Elkarteko Mapa, 1882. AM edo mapa soilik deituko dugu iruzkinetan.
- Belasko, Mikel, *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*, 2000. MB iruzkinetako aipamenetan.

Eta emaitza nagusia, berriz, lantxo honetaz gain, Tracasa-k egindako mapa, zeinetan toponimoez at bide, erreka eta baita altuera maila desberdinak ere markaturik agertzen diren.

Lan honetan, bestalde, toponimoen egungo burutzapenaz gainera, aipatu materialetan (NTM, Arañazko mapa, aipatuko ditugu bereziki) agertzen diren burutzapenak jaso ditugu, eta baita bakoitzari dagokion iruzkina ere, honek toponimoek jasan duten bilakabidea ulertzen lagunduko duelakoan. Toponimo nagusiak maiuskulaz daude idatzita eta hauengandik eratorriak minuskulaz. Guk ez dugu burutzapen arautu edo formalizaturikoa eman nahi izan, gehienetan zail suertatzen delako horrelakorik erabakitzea (*lurlodi* ala *lurlahi?*, *aranbeltz* ala *haranbeltz?*), eta oso agerikoak direnetan, berriz, egungo burutzapenetik oso urrun geratzen da askotan, ulermena bera ere oztopa dezakeelarik (*Jaun Done Mikel* ala *Fandalamikel?*, *Bizka(r)gain* ala *Bizkain?*, *Done (Se)bastia(n)* ala *Donostia?*, *Putterri* ala *Putreharri?*, *Axaibuztendei* ala *Azeribuztandegi?*). Horrexegatik, herritarren burutzapen bera proposatuko genuke erabiltzea. Guztira 245 nagusi eta 155 eratorri (gehienetan nagusiaren zehazpena baino ez ditugu, baina oso gutxitan bada ere, beste toponimo baten eremuko izen berriak) ditugu eta bost eremu geografikotan banatu ditugu:

- a) Elkorriko “Kifosa fabrike”-tik Gipuzkuko mugaraino doan errepidetik Aralar eta Gipuzku alderako eremuko toponimoak.
- b) Aurreko eremua mugatzen duen errepidetik Arakil ibairainoko eremuko toponimoak.
- c) Lizarragabengoako eremukoak.
- d) Arakil ibaitik autobiderainokoak.
- e) Autobidetik Urbasarainokoak.

**a) Elkorriko “Kifosa fabrike”-tik Gipuzkuko mugaraino doan errepidetik Aralar eta Gizpuzku alderako eremuko toponimoak:**

<p><b>-ALLEKO</b>                  Allekogeñe                  Allekoitturri                  Allekoko saarra                  Allekoko langa                  Allekoko lezie                  Allekoko kortela                  Allekoko bidie</p>	<p>C1                  C1                  B1                  B1                  B1                  B1                  B1                  B1-2</p>	<p>Horrela dago jasoa NTM-n, eta bertan, dokumentazioaren atalean, ondorengo burutzapenak ageri dira: <i>aleco</i> (1197), <i>alleco</i> (1526), <i>allecogaña</i> (1622), <i>allicogaña</i> (1685). XIX. mendeko Arañazko mapan ere <i>alleco</i> agertzen da. MB-k ondorengo dio toponimo honi buruz: “Nombre antiquísimo, repetido en otros puntos de Navarra, pero de significado oscuro. Compárese, por ejemplo, con <i>Alleku</i>, en Zubieta documentado ya <i>Allecu</i> en 1568, y al que Andrés Iñigo aplica el adjetivo &lt;oscuro&gt;, aunque sugiere sin ningún convencimiento *<i>Arrileku</i> ‘Pedregal’ como origen”. Lehen toponimo eratorriko <i>ai</i> &gt; <i>ei</i> diptongoaren itxiera ohikoa dugu Etxarriko hizkeran, eta baita asimilazio aurrerakaria ere: <i>geñe</i> &lt; <i>gañe</i> &lt; <i>gaña</i>. Bigarrena, <i>Allekoko iturria</i> NTM-n. Eta hirugarrenean, badirudi bokal berdinen arteko herskari belare ahostunaren galera gertatu dela: <i>saarra</i> &lt; <i>sagarra</i>. Gure informatzaileek esaten digutenez, sagarrondoak egoten ziren eremu honetan, eta ‘motel’ samarrak zirela zehaztu digute gainera.</p>
<p><b>-ANSARETA</b>                  Ansaretako malkorra                  Ansaretako zaparra                  Ansaretako zierbidie                  Ansaretako erreka                  Ansaretako zabala</p>	<p>D1                  D-E1                  D-E1                  E1                  C-D-E1                  D1</p>	<p>NTM-n soilik <i>ansaretako zaparra</i> jaso dute. Zalantzarik gabe, herriko toponimian hain hedatua ageri den <i>sare</i> izena dugu bere osagaien artean, eta baita <i>-(e)ta</i> morfema eratorlea ere. Hala ere, ez dago bere esanahi osoa argitzerik. <i>Malkorra</i> oso hedatua dugu inguru osoan, ‘haitz’ esan nahi duelarik. <i>Zaparra</i> zuhaitz landare gazteak multzoan datozenean esaten da. Karasatorrek (1993, 356) Sakanako aritz mota bat dela dio. <i>Zierbide</i>-a ‘zeharbide’ a izango genuke, hots, zuzena ez dena.</p>
<p><b>-ARGARBI</b></p>	<p>D1</p>	<p>Horrela ageri da NTM-n ere. ‘Harri garbi’-tik again, baina ‘garbi’ hitzak zuhaitz edo landare gabeko tokia adierazten duelarik, seguru aski. Eremu honetan bi ‘<i>melle</i>’ (malkor maila) garbi-garbiak ikus daitezke.</p>
<p><b>-ARIZBIYURRITE</b>                  Arizbiyurriteko erreka</p>	<p>E1                  D-E1</p>	<p>NTM-n <i>arizbiurrieta</i>. Beste ondorengo burutzapenak ere jaso dituzte: <i>arizbiurritacogorostiaremburua</i> (1807), <i>arizbiurrieta</i> (1991). Oraingoan ere asimilazio aurrerakaria izango genuke toponimo honetan. Badirudi “haritz bihurriak dauden tokia” adierazten duela.</p>
<p><b>-ARRAMAXKA</b>                  Arramaxkako sarie</p>	<p>E1                  D-E1</p>	<p>Ez dute jaso NTM-n. Larruazalean egiten den urratu ez oso sakona da ‘harramaska’, eta toponimo moduan ere, antzeko zerbait izan</p>

		<p>daiteke, lurtean ageri den urratu modukoa, zuhaitzik gabeko lekua, sasi, harri eta belarrez estalia. Urbanan ere bada toponimo berdina, eta lekua ere deskribatu dudaren antzekoa. <i>Sare</i>-a, ganadua gauzez biltzeko berezko tokia-ri esaten zitzaion. Sakana osoan erabiltzen da. NTM-n <i>saroi</i>, <i>sarobe</i> eta <i>sario</i>-ren parekotzat jotzen dute.</p> <p>Horrela ageri da BB-n (1993, 90): “arañazo; hay varios topónimos (en Andía y Putterri) indicando lugar escabroso: camino de piedras entre peñas; es un topónimo descriptivo de mal paso, donde el carro brincaba al andar; al ser terrenos de roca caliza, la erosión ha dejado a esta agrietada”.</p>
-BONBONEKO LEZIE	D1	<p>Ez da ageri NTM-n. Hitz onomatopeikoa dirudi, bere lehen zatia (<i>bonbon</i>) dagokionez, bertara zerbait botatzen denean ateratzen duen soinua onomatopeia izango litzatekeelarik, hain zuzen. <i>Leze</i>-a, bestalde, ‘leize’ a izango genuke, lurtean bertikalki sartzen den zuloa, hots.</p>
-ELKORRI	1-2	<p>Horrela ageri da NTM-n. Gipuzkuko mugan dagoen eremuari esaten zaio orokorrean. Karasatorrek dio (1993, 147-148) ertaroko herri galdua izan daitekeela.</p> <p>Bestalde MB-k <i>Elkarrikoa</i> jaso du Iturenen eta ondorengo esanahia ematen dio: “La Facería. Terreno compartido por dos o más pueblos. Lit. ‘Lo que se tiene en común’ de *<i>Elkarrekikoa</i>”. Eta eremu honetako lurrak, Arañaz elkartearnak izan ziren XIX. menderaino, ondoren herrien artean banatzeko, eta horrela ‘Elkorri’-n Etxarrik, Ergoienak eta Arbizuk dute gaur egun basoa.</p>
-ELURZULOTA	E-F1	<p>NTM-n <i>elurzuloeta</i>, eta dokumentazioari dagokionez <i>elurzulota</i> (1882). Badirudi elurrez beteriko dolinei begira dagoela toponimo hau eraikia. R. Karasatorrek BB-n ondorengo dio: “nevera natural ver topónimos de E_A y Aralar; eran simas o dolinas que llenaban de nieve en invierno y que acarreaban en verano para su venta, principalmente en Pamplona”.</p>
-ERDONZEI	D1	<p>Ez dago NTM-n jasorik. Lizarragabengoako dermioan <i>erdonza</i> toponimoa dugu, eta kasu honetan badirudi <i>-(d)egi</i> morfema eratorlea erantsi zaiola, ondoren bokal arteko herskariaren galera suertatu bada ere. Etxarriko hizkeran <i>n</i>, <i>l</i>, <i>r</i> ondoren ohi den moduan (<i>pen-sube</i>, <i>falsue</i>, <i>franzesa</i>, <i>salsa</i>, <i>bersube</i>, <i>bizerzube</i>,...), frikariaren alde neutralizatua ageri da.</p>
-ERRETZIE	C1	<p>Ez da ageri NTM-n, eta seguru aski ‘erretako tokia’ adieraziko luke. <i>Erretze</i> <i>+a</i> &gt; <i>erretzie</i>,</p>

		disimilazioa eta ondorengo bokal asimilazioa jasaten dute herriko hizkeran <i>-e-z</i> bukatu-riko lexemek mugatzailea eransterakoan.
-ETXOIZ Etxoizgo errebuelta Etxoizgo kueba Etxoizgo kortela	C-D2 C2 D2 C2	Ez da ageri NTM-n. Lehen osagaia <i>etxe</i> izan daiteke, ia seguru, baina bigarrenak buruhauste gehiago sortzen ditu. Hala ere, Burundako Ziordin <i>fandoilar</i> dugu, eta toponimo hau horrela ageri da dokumentaturik 1731an: <i>juandonizlarre</i> . Horrela, beraz, baliteke gureak ere antzeko bilakabidea izan duela pentsatu: <i>etxe + doniz &gt; etxadoniz &gt; etxao-niz &gt; etxooniz &gt; etxoniz &gt; etxoiz</i> . Arañazko mapan <i>etroiz</i> jaso zuten. Azken eratorriaren bigarren osagaia, <i>kortela</i> , maiz erabiltzen da, seguru aski 'kuartel'-etik datorrelarik, baina <i>portalanga</i> -k (bide batean, alde batetik bestera doazen 'langez' osaturiko ate modukoa) dauden tokietan esaten da gehienbat.
-FANTXOFAGO	C-D1	Ez dator hau ere NTM-n. Etxarrin, bestalde, <i>Fantxonekue</i> (Juantxonekoa) <i>etxe</i> izena dugu, beraz ez litzateke ausardia gehiegirik izango toponimo honek jatorri bera duela esatea: <i>juantxo(ren)fago &gt; fantxofago</i> . Arañazko mapan <i>sanchofago</i> ageri da jaso.
-GANBELETAKO ITTURRIYE	C1	<i>Ganbela</i> ganaduari ikuiluan jana emateko tokiari eta baita ura biltzekoari esaten zaio. Gaur egun ' <i>siyetsak</i> ' egoten dira, eta bertan basurdeek ' <i>idoittu</i> ' egiten dute, hots, lokatze-tan itzulipurdika ibiltzen dira, parasitoak kentzeko. R. Karasatorrek BB-n ez du toponimo hau zuzenean jaso, baina <i>ganbela</i> izena azaltzerakoan ondorengo aipamena egiten du: "... se hizo un prendamiento de ovejas en Iraio y paraje de la fuente de Pesebre o Gambelaco iturria (1800 en Putterri, zona de Aralar, E-A)." 
-IKURKE MAKURKEKO XENDA	C1	Hitz joko- z osatutako toponimoa dugu hau, 'ikurka-makurka' (zig-zag), asimilazio aurre- rakaria burutu delarik. <i>Xenda</i> 'bidezidorra' izango genuke. Ez da NTM-n ageri. BB-n aditzondo moduan ageri da 'ikurka-makurka': "haciendo eses, tambaleándose, zigzagueando".
-IREYO Ireyogēne Ireyoko erreka Ireyoko ixtordeye Ireyoko melle Ireyoko kortela	C1 D1 C1 C1-D1 D1 C1	NTM-n <i>iraio</i> jaso dute, <i>irayo</i> (1807) dokumentaturik agertzen dutelarik, eta ez dute honengandik eratorritako beste toponimorik jaso. Berrito ere <i>ai &gt; ei</i> diptongó itxiera ageri zaigu. <i>Ixtor</i> -a 'garo'-aren orde- z erabiltzen da Sakanan. Beraz, 'garo' edo 'ira' lekua adierazten du: <i>ixtor + -de(g)i</i> .

		<i>Melle</i> (< <i>meille</i> < <i>maille</i> < <i>maila</i> < <i>maila</i> ) ( <i>ai</i> > <i>ei</i> , asimilazio aurrerakaria, palatalizazioa) hitzak arkaizak adierazten ditu.
–KALENLANTEI	E-F1	NTM-n <i>kalelantegi</i> . Badirudi <i>Kale(r)en</i> (etxe baten izena, ziur aski; <i>Kaleko Anttoniona</i> eta <i>Kaleko Martinana</i> behintzat badira) <i>lante(g)i-a</i> adierazten duela. <i>Lantei</i> , egun ere basoa ateratzeko lanari esaten zaio.
–KUEBETAKO MELLE	C1	Ez da NTM-n ageri. Ez dira ‘haitzulo’ edo ‘harpe’ (hau bai ageri zaigu toponimian, behin gutxienez) hitzak erabiltzen Etxarriko hizkeran, ‘leze’ edo ‘kueba’ baizik. Lehena, <i>leze-a</i> , bertikala den haitzuloa adierazteko erabiltzen da; bigarrena, toponimo honetakoa beraz, horizontalei egokitzen zaie. <i>Melle</i> dagoeneko azaldua dugu beste toponimo batean.
–LIYES(O)OTA	B2	NTM-n <i>liosoroeta</i> , eta dokumentaturik: <i>liyesorota</i> (1788), <i>liñesorota</i> (1788). ‘Lihosoro’ toki nonbait. Bokal berdinen arteko dardarkari xamurraren galera jasan du. Karasatorrek BB-n ondorengo toponimoak jaso ditu inguruan: <i>Bixentânllyesoo</i> (sima en Urbasa), <i>Tâlânekoliyesô</i> (Ergoyena), <i>Garbiñekoliyesô</i> (Ergoyena), <i>Liyesorota</i> (E-A), <i>Liyasoro</i> (U), <i>Liyeceta</i> (1900, A) ...
–LIZERROSTI Lizerrostiko malkorra	B2 B1	NTM-n <i>lizarrusti</i> , eta baita <i>lizarrausti</i> (1572), <i>lizarrosti</i> (1893). <i>Lizer</i> + <i>oste</i> (atze, gibel) izan daitezke bere osagaiak, ‘lizardiaren atzekaldea’ adieraziko lukeelarik. MB-k <i>Peña de Lizarrosta</i> aipatzen du Bakedanon, esanahi berdina eman, eta aipatuz Nafarroako toponimian ohikoa den <i>gibel</i> -en ordez <i>osta</i> ageri dela oraingoan. BB-k <i>leizaurresti</i> eta <i>lizaurresti</i> (1572) dokumentatzen ditu, bi burutzapenak dokumentu berean ageri direla esanez eta ondorengo gaineratuz: “ <i>Leizaurresti encajaria bien con las características que tiene el paraje por sus abundantes cuevas y avellanos</i> ”. Edozein modutan, ezaguna da inguru guztian toponimoaren lehen osagaia, <i>Lixerrenge</i> (Lizarragabengoa), <i>Lizerraa</i> (Lizarraga), eta ez dugu berriz <i>leize</i> -rik aurkitu. Egungo hizkeran <i>leize</i> > <i>leze</i> monoptongazioa suertatzen da, eta ez da ageri toponimo elkartuetan. Egungo burutzapenean, asimilazio aurrerakaria oraingoan ere: <i>lizar</i> > <i>lizer</i> . ‘Malkor’-a <i>melle</i> -ren (‘maila’) parekoa izango litzateke.
–MELLETA	C1	Ez da NTM-n ageri. Gogoratu <i>ireyoko melle</i> toponimoan azaldutakoa: <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo itxiera, asimilazioa eta bustidura edo palatalizazioa jasan ditu burutzapen honek. BB-n ho-

		rrela dator 'mella' sarreran: "...; escalón, peña y bajo esta idea el topónimo Meilleta en E-A y otros pueblos. Su relación con peña se aprecia en Sekafitekomella o 'Peña Secafe' (1882, E-A)".
-MIONDASARE	C1	NTM-n <i>biondasare</i> , baina <i>meondasare</i> (1882) eta <i>meundasare</i> (1882, <i>Arañazko mapa</i> ) dokumentaturik. <i>Sare</i> izena baino ez da agerian geratzen bere osagaiei dagokienez.
-MOKOMIAR	C1	Ez da NTM-n ageri. <i>Moko</i> + <i>mehar</i> seguru aski. Lehen osagaia beste toponimo batean ere ageri zaigu: <i>armokolatz</i> . <i>Moko</i> hitza, agerian dagoena adierazteko erabiltzen da: <i>Arrontza moko-mokuen zikok olluorrek!</i> (Arraultza moko-mokoan zeukak oilo horrek!). Momentu horretan erruten ari dela adierazteko.
-OROIGEÑE	E-F1	Hau ere ez da ageri NTM-n. <i>Odoigeñe</i> ere entzun daiteke. <i>Oroye</i> -k Etxarrin 'ekaitz'-aren esanahia du, eta burutzapen hau <i>d/r</i> kontsonante txandaketaren lekuko izango genuke Etxarriko hizkeran, <i>eraye</i> (edaria) eta <i>erabie</i> (edabea) bezala.
-OTAIKO MUÑUE	C2	NTM-n ez dago jasorik. <i>Otadiko muinoa</i> izango genuke jatorriz, lehen zatiko bokalen arteko hortzetako herskari ahostunaren galera, eta bigarrenekoan, sudurkariaren palatalizazioa gertatu direlarik. 'Ota' landare ezaguna dugu toponimian. Altsasun <i>otadia</i> toponimoa dute.
-PUTTERRI Putterriko itturriye Putterriko lezie Putterriko zuloaundiye Putterritxiki	F1 F1 F1 F1 E1	<i>Puttarri</i> jaso dute NTM-n, eta ondorengo kasutan dokumentaturik agertzen dute: <i>bueytarri</i> (1197), <i>putarri</i> (1685-1781-1857-1958), <i>frutarri</i> (1781), <i>pucharri</i> (1981). Eta hauxe gaineratzen dute: "Puttarri parece ser, pues, uno de tantos montes llamados <i>Buitrera</i> , <i>Peñalosbuitres</i> , <i>Putremalkor</i> ... etc." Hortzetako herskari ahoskabearen palatalizazioak aurreko <i>-i</i> baten presentzia adieraz dezake, eta hortaz hauxe izan daiteke bere bilakabidea: <i>buitre</i> + <i>arri</i> > <i>buittearri</i> > <i>buitterri</i> > <i>puitterri</i> > <i>putterri</i> , <i>ezpainetakoen</i> arteko txandaketak maiz gertatzen baitira. Egungo hizkeran, bestalde, <i>arrañoa</i> erabiltzen da 'saia' edo 'putre'-aren lekuan. MB-k ondorengo iruzkina egiten du: "Michelena a partir de la forma más antigua analiza los componentes del nombre: <i>butre</i> , <i>putre</i> 'buitre' (en <i>Bueytarri</i> , la forma navarroaragonesa <i>bueitre</i> ) y <i>harri</i> 'peña', con disimilación regular de vibrantes. La forma documentada <i>Frutarri</i> (1781) confirma la etimología, ya que <i>frute</i> es variante todavía en uso hoy, al menos en el valle de Ergoiena, de <i>putre</i> 'buitre'".

–SANTUBAN KOLARRIE	B1	<i>Santubankolarrea</i> NTM-n. <i>Santuaren korralea</i> izan daiteke, bigarren terminoaren metatesia eta guzti. Baina baliteke <i>santuban(e)ko larrie</i> (santubaren + -eko) ere izatea, <i>Xantuba</i> -ren etxea izan baita Etxarrin duela gutxi arte, eta bigarren osagaia oso arrunta da herriko hizkeran, eta baita toponimian ( <i>kostuelgo larrie</i> ) ere.
–SEKAFIKO MELLE	C-D1	NTM-n <i>saikafietako maila</i> jaso dute, eta ‘sai’-en <i>kafi</i> -ekin lotzen dute honen esanahia. <i>Kafi</i> -a ‘habi’-a izango genuke Etxarriko hizkeran. Gogoratu <i>putterri</i> toponimoa azaltzerakoan esandakoa ‘saia’ edo ‘putre’-ei dagokionez Etxarriko lexikoan. Bestalde, <i>melle</i> -ri dagokionez, aurreko toponimo batean, <i>ireyoko melle</i> , esandakoa gogoratu. (Ikus <i>melle</i> )
–TXORTXOR Txortxorgo erreka	C2 C1-2	Toponimo onomatopeikoa, uraren soinua adierazten duena. NTM-n ere jaso dute, <i>txortxorgo erreka</i> , ezer gehiago gaineratu gabe.
–ZELATAKO ENTRADA	B2	NTM-n <i>zelatako sarre</i> a. Zelatan egiteko tokia- ren hasiera adierazten duela dirudi. Bada osagai bereko beste toponimo bat ere, <i>zelatamuno</i> .
–ZULOBELTZ	C1	Horrela dute jaso NTM-n. Ez du azalpen gehiegirik behar.

**b) Aurreko eremua mugatzen duen errepidetik Arakil ibairainoko eremuko toponimoak:**

–ANBELTZ Anbelzgo zulo	C4 C4	NTM-n <i>aranbeltz</i> , eta dokumentatua <i>arambelz</i> (1920), eta toponimoaren lehen osagaia, ( <i>h</i> ) <i>aran</i> , ‘sakan’-aren sinonimotzat hartzen dute. Herriko hizkeran, bokal berdinen arteko dardarkari xamurra galdu du. Ikusten denez, hitz bukaeran txistukari afrikatua mantendu egiten da, baina deklinabide morfema eransterakoan, frikariaren alde neutralizatzen da. ‘Haran beltza’, iluna, izango genuke beraz, toponimo honen esanahia. MB-k <i>aranbeltza</i> ( Facero de Arellano-Arróniz-Dicastillo) jaso du eta esanahi berdina ematen dio.
–ANGORTA Angortatxiki	D-E5 E-5	NTM-n <i>arangorrieta</i> , eta aipatzen den dokumentazioan ondorengo burutzapenak jaso dituzte: <i>arangorrieta</i> (1704-1709-1718-1882-1893), <i>aramborta</i> (1893), <i>arangorte</i> (1893), <i>arangorta</i> (1915-1928). Toponimo honetan aurreko kasuko bilakabide berdinez gain, bigarren osagai sinkopa ere suertatu da. Bestalde, baliteke <i>aran</i> + <i>go(go)r</i> -etik bilakatzea, bigarren osagaia horrela, <i>gor</i> , burutzen baita



		egungo hizkeran. <i>Aranak</i> Etxarrin ‘basaran’-ei esaten zaie.
–ALLEKOTXIKI	A3	Ez dator NTM-n. Gezurra badirudi ere, <i>alleko</i> (C1) toponimo nagusitik oso urrun daukagu.
–ALPISTEZUI Alpistezuiko erreka	B-C3 C3	NTM-n <i>alpistazuri</i> jaso dute, eta horrela dokumentaturik ere 1882an. Lehen osagaia landare edo belar mota bat izan daiteke. Mitxelenak (OEH, I, 821) <i>alpitz</i> (G-nav) dakar: “Escoba que se hace con ciertas hierbas, y sirve corrientemente para limpiar los suelos”. Azken osagaiaren bokal arteko kontsonantearen galera suertatu zaio, bai dardarkari xamurra dela burutzapen dokumentatuaren kasuan, bai ezpainetako herskari ahostuna dela <i>zubi</i> izatekotan osagai hori. Beste toponimo batean, gutxienez, gertatu da <i>zubi</i> > <i>zui</i> bilakabidea ( <i>urbijotzendenzui</i> ) eta, egun ere, horrela erabiltzen da herriko hizkeran; bestea, ordea, hasierako txistukaria afrikatuaren alde neutralizatua ageri zaigu bai hizkeran, nola toponimian ( <i>txuixoo</i> < <i>txurisoro</i> ).
–ALTUNAN ARRUBIYE	D5	Ez dute jaso NTM-n. Altunarrak arginak izan ziren Etxarrin, eta hauxe izango genuke haien harrobia edo lantokia. Edute genitiboaren bilakabidea jasan du antroponimoak: <i>altunaren</i> > <i>altunaen</i> (dardarkari xamurraren galera) <i>altunaan</i> (V <sub>1</sub> V <sub>1</sub> > V <sub>1</sub> V <sub>1</sub> ) > <i>altunan</i> (V <sub>1</sub> V <sub>1</sub> > V <sub>1</sub> ). Bestalde <i>arrubi</i> dugu Etxarrin ‘harrobi’-aren forma.
–ALZARTE	D5	NTM-n txistukari afrikatuaz jaso dute. Etxarrin bi eratara, txistukari afrikatuz zein frikariz, entzun daitezke hau eta hurrengo bi toponimoak. Bestalde, aipatu hiru toponimoek <i>altza</i> zuhaitzari egiten diote erreferentzia.
–ALZIBE	D5-6	NTM-n <i>altziba</i> ageri da. Burutzapen dokumentatuei dagokionez, <i>alziba</i> (1701) eta <i>alci-ba</i> (1893) jaso dituzte, txistukari frikariz buruturikoak hauek ere.
–ALZITUERTA Alzituertatxiki	C6 C6	NTM-n <i>altziturrieta</i> , eta dokumentazioan berriz, guztiak agertzen dira txistukari frikariz: <i>altziturrieta</i> (1696-1701-1702-1709), <i>alciturrieta</i> (1893-1915), <i>alciturrita</i> (1893), <i>alzuiturrieta</i> (1700), <i>arciturrieta</i> (1915). Egungo burutzapenari dagokionez, <i>i</i> bokalaren galera eta metatesia jasan dituela ikus daiteke: <i>altziturrieta</i> > <i>alziturreta</i> > <i>alzituerta</i> .
–ANTANTXOLA Tondar zuluek	C3	NTM-n <i>antontxabola</i> , eta <i>antonchaola</i> (1882) dokumentaturik. Badirudi, beraz, <i>anton</i> an-

		troponimoa ageri zaigula toponimo honetan. Ugari dira, bestalde eremu honetan geratu diren <i>txondar zuluak</i> edo <i>txondar plazak</i> , hau da, ikazkinek txondorrek egiteko egokitutako lur zati lauak.
–ANTTONEKO ARITZE	D5	Ia modu berean jaso dute NTM-n, <i>anttoneko haritza</i> . Exarriko etxe baten izena dugu <i>anttoneko</i> -a. Fitonimoari dagokionez, asimilazio aurrerakaria da aipagarriena.
–ARBOTONETA	C3	Ez dator NTM-n. Hiru osagaiz buruturik izango genuke: <i>(h)arri + boton + -eta</i> , bigarrenak txikitasuna eta biribiltasuna ( <i>botoi</i> ) adieraziko lukeelarik.
–AREÑE	F4	Ez dute jaso NTM-n. Eremu zabala hartzen duen toponimoa dugu. <i>Ai &gt; ei</i> diptongo itxiera, sudurkariaren palatalizazioa eta asimilazio aurrerakaria jasan ditu: <i>araina &gt; areina &gt; areiña &gt; areiñe &gt; areñe</i> . Lehenengo burutzapena jasan gabe ere entzun daiteke Etxarri: <i>arañe</i> . Ezaguna da, bestalde, abizen moduan ( <i>Araña</i> ) Etxarri eta Arbizun bereziki, eta Karasatorrek (1993) ertaroko herri galdu bezala ematen du.
–ARGINBUUTA Arginbuuteko bordak Arginbuuteko erreka	D3 C-D3	NTM-n <i>arginburueta</i> , eta hurrengo burutzapen dokumentatua: <i>arginburueta (1846-1900-1932)</i> . <i>Argin + buru + -(e)ta</i> izango lirajteke bere osagiak, eta bigarrenaren kasuan bokal berdinen arteko dardarkariaren galera jasan du. Bertan aspaldiko harrobi baten aztarna nabariak daude. Hortik, ‘argin’-arentzat toki egokia izatearena.
–ARMENDIKO GEÑE Armendiko erreka	B-C3 B3	Ez dute jaso NTM-n, ez toponimoa ez erreka. Karasatorrek (1993) <i>armendiaga</i> jaso du Aralarren, Uhartre eta Irañeta inguruan.
–ARMOKOLATZ	C4	Hau ere ez dator NTM-n. <i>Harri + moko + latz</i> , osagaiei dagokienez. Bigarren osagaia ikusi dugu lehenago ere ( <i>mokomiar</i> ), eta hirugarrena berriz, ‘handi’ edo/eta ‘ugari’-ren esanahiarekin erabiltzen da sarritan. ‘Harri irtadura handia’ izan liteke, beraz, toponimo honen adierazpena, edo Arbizuko <i>armokillo</i> -ari erreparatzen badiogu, harri ugari, metatuak, pilatuak izango lirajteke, trikuharrietako tumuluei erreferentzia eginez agian.
–ARRIURDIN	C6	Ez dute jaso NTM-n. ‘Urdin’-ek gris koloreari egiten dio erreferentzia, gehienbat. Harri urdin eta gogorraren ( <i>argoorra</i> ) lekua adieraziko luke, seguru aski. BB-n “es el equivalente al Galtziñelabe (calera) de otros puntos” dator.

–ARTASO(R)O	B5	Horrelaxe jaso dute NTM-n, dokumentaturik eta guzti (1789-1882). Dardarkari xamurrez, zein dardarkaririk gabe entzun daiteke. <i>Arto</i> + <i>soro</i> ditugu bere osagaiak.
–ARTXAAN Artxango erbisarie Artxango loigeiztue	D5	NTM-n <i>artxaran</i> , eta dokumentaturik <i>archaran</i> (1858-1882). Gaur egun, oso era garbian entzuten da dardarkari xamurrik gabe. ( <i>H</i> ) <i>artz</i> + ( <i>h</i> ) <i>aran</i> izan daitezke bere osagaiak, XVII. menderaino dokumentaturik ageri baitzaizkigu hartzak Karasatorrek BB-n erakusten digun moduan: “... subsistieron en la zona hasta tiempos relativamente recientes; en las cuentas de Irañeta de 1593 ‘se les dio a los de Yabar tres reales por el oso que mataron’ (...) En las cuentas de Urdiain del año 1678 pagan ‘tres pellejos de ossos a dos reales y en las de 1689 ‘por un oso y dos lobos 3 reales’”. Lehen toponimo eratorriak, ‘erbiak’ harrapatzeko lekua aipatzen du, eta bigarrenak, <i>loigeiztuek</i> , berriz, leku lohitsu dela adierazten du, baina lohi itsaskorrekoa, garai batean gurdia traba handiak jasateko modukoa. Badira era honetan osatutako beste toponimo eratorriak: <i>epeyeko loigeiztue</i> , <i>sanadringo loigeiztue</i> .
–ASKUE Askuegeñe Askueko erreka Askueko lezie	B2	NTM-n <i>askoa</i> jaso dute, eta dokumentaturik <i>ascoa</i> (1685) eta ‘ <i>alto de ascoa</i> ’ (1702). MB-k <i>askoa</i> jaso du eta esanahi duda-mudakoa duela esaten badu ere, hurrengo azalpena ematen du jarraian: “Quizá de * <i>Aizkoa</i> ‘Peñica’ aunque sin descartar su relación con * <i>Arizkoa</i> ‘Roblecillo’. De hecho, en la misma localidad se usa la voz <i>askodi</i> con valor de ‘arboleada de lantás de poco porte’”. Baliteke, hasierako herskari belari ahoskabea galdu izana, <i>kaskue</i> ( <i>kaskoa</i> ) ‘muino’-ren sinonimotzat baitauekagu Etxarrin, gutxienez.
–ASTUEIN Astueingo siyetsak	D5 D4	NTM-n <i>astoain</i> , eta XIX. mendeko Arañaz elkarteko mapan, <i>astubiain</i> . <i>Asto</i> + <i>gain</i> izan daitezke bere osagaiak, eta horrela <i>astobizkar</i> -en (MB, 92, Valcarlos) pareko izango genuke. Ondorengoa izango litzateke bere bilakabidea: * <i>astogain</i> > <i>astoain</i> > <i>astuain</i> > <i>astuein</i> . <i>Siyetsa</i> , bestalde, hezetasun handiko lekua, ur-paltsak eta guzti, adierazteko erabiltzen da.
– AUNTZETXE Auntzetzezarra (bordabuukue) Auntzetzezarra (oliyoarritue)	B3 B4	Modu berean jaso dute NTM-n. Basoan abereak, eta bereziki ahuntzak, biltzeko bordak egiten ziren. Egun <i>auntzetxe</i> bakarraren hormak baino ez dira gelditzen, baina garai batean bi ziren, <i>bordabuu</i> -koa eta <i>oliyoarritue</i> -koa. Lehena, Etxarriko plazaren mendebaldean zeuden ia etxe guztietakoek erabiltzeko zen; eta bigarrena, plazaren ekialdean zeudenak eta mendebaldeko egungo mojen etxetik

		‘Matera’ etxera bitartekoak, biak barne. Horrela beraz, <i>auntzetxezar</i> -en arteko herriko muga, ‘Matera’ eta ‘Joxanjel’-en etxeek egiten zuten.
–AZKONARZULOTA	A-B5	NTM-n <i>azkonazuloeta</i> . Argi dago ‘azkonar’-en (basapizti mustelidoa) zuloei egiten diela erreferentzia. XIX. mendeko mapan <i>azconaco-zulueta</i> ageri da.
–BASOKOPALE	D5	NTM-n <i>basopokale</i> jaso dute, <i>vaso-vocalea</i> (1896) dokumentaturik, eta egia da bi eratara entzun daitekeela gaur egun etxarritarren ahotan, baina metatesidun burutzapena nagusitu delarik, nire ustean. <i>Pokale</i> < <i>bokale</i> -k ‘sarrera’ adierazten du, bestalde, bai etxekoa nola lur eremuarena.
–BAXATE Baxateko axkoye	C6 C6	NTM-n <i>basate</i> , eta oso dokumentaturik gainera: <i>basate</i> (1696-1702-1709-1893-1915), <i>basatea</i> (1890-1893), <i>basati</i> (1893), <i>vasate</i> (1915). Aurrekoaren sinonimotzat har deza-kegu toponimian, basoko sarrera edo ‘ate’-a adierazten duelarik. Toponimo eratorriaren bigarren osagaiari ( <i>axkoi</i> ) dagokionez, NTM-n <i>axkodi</i> -tik erator-zen dute, eta hauxe <i>harizko</i> fitonimotik, toki zikina, sasi, lar eta zuhaitz txikiz osatua, adie-razten duelarik. Karasatorrek (BB, 96) ondo- rengo gehitzen du: “...; si otra variante diera ‘askodia’, habría que pensar en ‘aska(a)+odia’ (corte+hondonada), pero para ello serían necesarios más ejemplos”. Nire ustean, egokia- goa suertatuko litzateke ( <i>h</i> )azi + <i>-koi</i> -tik era- tortzea, zuhaitz landareak sarri hazten diren toki adieraziko lukeelarik, hauxe esan baiti- gute dela <i>axkoi</i> -a gure informanteek.
–BAZTARROLA Baztarrolako maldiyue	B-C3 C3	Horrela jaso dute NTM-n, eta burutzapen dokumentatuak: <i>bazterrola</i> (1846), <i>basterrola</i> (1882), <i>bastarrola</i> (1882). <i>Baztar</i> + <i>ola</i> dira bere osagaiak eta ‘ola’-k burdin lana adierazten digu, eta gainera, inguruan, osagai berdineko beste toponimoak ageri zaizkigu: <i>goikola</i> , <i>be-kola</i> , <i>olanu</i> . MB-k (2000, 116) toponimo ber- dina jaso du Leitzan eta ‘baztarreko txa- bola’-tzat hartzen du. <i>Maldiyue</i> -k ‘malda’, aldapa gaiztoa, adierazten du.
–BEITZETA Beitzetako erretzie	A-B4 A-B4	Ez da ageri NTM-n. 1846ko mapan <i>beiceta</i> . <i>Bei</i> + <i>zain</i> > <i>beitzei</i> izan daiteke bere jatorria, <i>-(e)ta</i> atzizki eratorlea eransten zaiolarik. Bes- talde, <i>erretzie</i> aztertua dago lehen eremuan, toponimo nagusi moduan.
–BEKOLA	D3	Horrela jaso dute NTM-n. Martín Jauregik eraikia 1802an. Zutik dirau, oraindik, lur ere-

		muari izena ematen dion ‘burdindegi’, baserri edo basetxea. ‘Beheko ola’ adieraziko luke, apur bat iparralderago ‘Goiko ola’ ( <i>goikola</i> ) baitaukagu.
–BELAZKAFITA Belazkafiteko txabala	C-D4 C-D3-4	NTM-n <i>belazkafietako zabala</i> . Aldiz, dokumentaturik: <i>belazkafieta</i> (1844-1857-1911), <i>belazcabieta</i> (1916-1923). ‘Belatzen habi tokia’ izango genuke beraz, eremu hau. Toponimo eratorriaren bigarren osagaiak, <i>txabala</i> , leku lau edo zabala adierazten du.
–BENTATXAR	A3	Ez da ageri, ez NTM-n ez Arañaz elkarteko mapan. <i>Lapurbide</i> -ren ondoan dagoenez, erraz pentsa daiteke, nondik edo zergatik dator kion lur eremu honi halako izena. Leku desegokia zen, nonbait, atsedean edo ostatu hartzeko garai batean.
–BERRUETA	E-F5	NTM-n <i>berroeta</i> , baina bi modutara ageri da dokumentazioan: <i>berroeta</i> (1696, 1700-1702-1730), <i>berrueta</i> (1702-1709-1893-1915). Gaur egun, toponimoaz gain, bertan dagoen baserriari ere horrela esaten zaio. Arañazko mapan ere <i>berrueta</i> ageri da. Karasatorrek (BB, 121) “... de ambas formas (-oe-/ -ue-) aparece este topónimo y referido a terrenos de reciente rotura (E-A, Ur)” esaten du. ‘Berroeta’ jaso du MB-k (2000, 128) Izal-en (Urraul): “‘Las roturas’. Del vasco <i>berro</i> ‘rotura, artiga’ y el sufijo locativo <i>-eta</i> ”.
–BIORTAZABAL	C5	NTM-n <i>berroetazabal</i> ageri da, eta Arañazko mapan <i>biortezabal</i> jaso zuten. Litekeena da <i>berroeta</i> -tik etorri izana, metatesia medio. Bestalde, <i>zabala/txabala</i> ‘zelai’-aren esanahiarekin erabiltzen da.
–BORDABUU	B4-5	Ez da NTM-n ageri, eta Arañazko mapan, aldiz, soilik <i>borda</i> eta ‘llano de borda’. Horrela beraz, toponimo hau eta hurrengoia ikusirik, pentsa daiteke lur eremu honi <i>borda</i> esaten zitzaiola garai batean, eta gainera, badakigu <i>auntzetxe</i> (abereen borda) zaharretariko bat toponimo honen eremuan zegoela XX. mendearen lehen erdian. <i>Borda</i> + <i>bu(r)u</i> dira bere osagaiak eta MB-k (2000, 135) <i>bordaburu</i> jaso du Arrarats, Ezkurra eta Igoan, ondorengo gehitzen duelarik: “Alto de la Borda. Del vasco <i>borda</i> ‘corral cubierto’ y <i>buru</i> ‘parte elevada, alto’”.
–BORDAZELEI	B-C5	<i>Bordazelai</i> NTM-n, eta ‘llano de borda’ Arañazko mapan. Gogoratu <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo itxiera. Nahiko nabariak suertatzen dira bere esanahia eta osagaiak.
–BUZTINDEI	C3	Ez dago NTM-n jaso. Buztin asko dagoen tokia adierazten du, <i>buztin</i> + <i>-degi</i> direlarik

		<p>bere osagaiak. Zenbaitek <i>buztindii</i> ere esaten du. Atzizki eratorlearen bilakabidea ondorengo izan da: <i>-degi</i> &gt; <i>-dei</i> (bokal arteko herskari belarearen galera) &gt; <i>-dii</i> (<math>V_1V_2 &gt; V_2V_2</math>).</p>
-DANBOLINTXULO	C5	<p>Horrela dago jaso NTM-n. Dokumentazioari dagokionez: <i>dambolinchulo</i> (1782-1784), <i>danborinchulo</i> (1882). 'Danbolin'-ek bi esanahi ditu Etxarriko hizkeran: musika tresna, alde batetik; eta gaztainak erretzeko burdinezko tresna, bestetik <i>zartan</i>-arekin batera. Biek ere itxura edo forma berdintsua dute. San Adriango erromeria egunean, txistua eta danbolina jotzen da eremu honetan, baina garai batean gaztainondo ederrak ere baziren bertan.</p>
-ELIONBASO	F4	<p>NTM-n <i>elionbasoa</i>, eta horrela ere dokumentatua: <i>elion</i>(1821), <i>elionbasoa</i> (1821). <i>Elioren</i> + <i>baso</i> dira bere osagaiak. Antroponimoaren kasuan ondorengo bilakabidea izan du: <i>eliorren</i> &gt; <i>elioen</i> (dardarkariaren galera) &gt; <i>elioon</i> (<math>V_1V_2 &gt; V_1V_1</math>) &gt; <i>elion</i> (<math>V_1V_1 &gt; V_1</math>).</p>
-ELIZKUNTZE	B4	<p><i>Elizkunza</i> jaso dute NTM-n, sudurkariaren ondoren frikariaren alde neutralizaturik, Etxarriko hizkeran sarritan gertatzen den moduan. Guk bi erataria jaso dugu, txistukari frikariz zein afrikatuz, hori bai bukaerako bokal asimilaturik. Behin agertzen da dokumentaturik: <i>elizkunza</i> (1765). <i>Eliz(a)</i> + <i>un(t)ze</i> dira bere osagaiak, bigarrenak toponimian 'belardi'-ari erreferentzia egiten diolarik.</p>
-ELORZA Elorzako montteye	B5 B5	<p>NTM-n <i>elortza</i> jaso dute, baina dokumentazioan, bakarra jaso badute ere, txistukari frikariak agertzen da: <i>elorza</i> (1882). 'Elorri' lekua adieraziko luke toponimo honek, <i>elorri</i> + <i>-(t)za</i> ugaritasuna adierazteko atzizkiak osaturik. MB-k (2000,160) Gorritin <i>elosta</i> jaso du eta ondorengo bilakabidea atxekiten dio: <i>*elorzeta</i> &gt; <i>elozeta</i> &gt; <i>elosta</i>. Ez dirudi, beraz, oso desbideraturik gabiltzanik. <i>Monttei</i>-a, berriz, 'mintegi'-aren ordaina izango genuke Etxarriko hizkeran.</p>
-EPELE Epeleko serie Epeltxiki Epeltxikiko montteye	C6 C6 B5 B5	<p><i>Epela</i> jaso dute NTM-n, eta bi erataria dokumentaturik: <i>epela</i> (1882), <i>epele</i> (1882-1991). Horrela azaltzen du Karasatorrek (BB, 150): "...; se trata de un paraje bien protegido de los vientos; cerca pasa un regacho con el nombre de Ibarbeltz, de largo recorrido y con numerosos nombres derivados en los pueblos por donde cruza". 'Sare'-ak gauzez abereak biltzeko tokia adierazten du.</p>
-EPEYE Epeyekoko erreka	C5 C5	<p>NTM-n <i>eperia</i> jaso dute, eta horrela ageri da Arañazko mapan (1882) ere. Dardarkariaren ga-</p>

Epeyeko loigeiztue Epeyeko sukeldie	C5 D5	lera, eta ondorengo asimilazio eta kontsonantizazioa jasan ditu toponimo honek egungo burutzapena arte. <i>Eper</i> izan daiteke bere lehen osagaia. <i>Eperiko sukalde</i> ere jaso dute NTM-n, kontuan izan gabe asimilazio aurrerakaria.
–EPUZTEN	C6	Modu berean jaso dute NTM-n. Bigarren osagaia <i>buztan</i> izan daiteke, bigarren bokala asimilaturik eta ezpainetako herskaria txandaturik, eta lehena, agian, <i>eper</i> edo <i>epela</i> , berriro ere, <i>epele</i> toponimoaren bazter batean gelditzen delarik.
–EZKIBEL	F4	NTM-n ere berdin, eta oso dokumentaturik: <i>aizguibela</i> (1652-1701), <i>ayzguibela</i> (1652-1748-1808-1809), <i>aizguibel</i> (1709), <i>aizquivel</i> (1893). Jaizkibel <sup>3</sup> -en parekoa izango genuke, beraz. ( <i>H</i> )aitz + <i>gibel</i> dira bere osagaiak. Bigarren osagaia, <i>gibel</i> , arrunta da toponimian, nahiz eta Etxarriko hizkeran beti <i>atze</i> erabili.
–FAAMENDI Faamendiko itturriye Faamendiko trunkuaundiye	B-C4 B-C4 B4	NTM-n <i>fagamendi</i> eta <i>fagamendiko haritza</i> eta lehena ere bai Arañazko mapan. <i>Fago</i> + <i>mendi</i> dira bere osagaiak. Ikusten denez, bokal arteko herskari belarea galdu da. Bigarren eratorriak zuhaitz handi bati egiten dio erreferentzia.
–FAGAIEDER	A-B4	Ez dute NTM-n jaso, eta Arañazko mapan <i>fagayeder</i> dago jaso. Kasu honetan ez du herskari belarea galdu. Bere osagaiak <i>fagadegi</i> + <i>eder</i> izango lirateke, lehenaren kasuan ondorengoa izan zitekeelarik bere bilakabidea: <i>fagadegi</i> > <i>fagadei</i> (herskari belarearen galera) > <i>fagadii</i> (VV > VV > V) > <i>fagai</i> (herskari hortzetakoaren galera).
–GATZARRITE	B3	NTM-n <i>gatzarrieta</i> , eta Arañazko mapan <i>gazarrieta</i> . <i>Gatz</i> + ( <i>h</i> ) <i>arri</i> dira bere osagaiak. <i>Argazi</i> -ren parekoa izango genuke, eta Etxarriko toponimian, bi tokitan ageri zaizkigu <i>argazi</i> -ak, <i>maitzegurgo argaziye</i> eta <i>urritzgeingo argaziye</i> . Dena den, badirudi ‘artare’-ak izango liratekeela hauek eta abereek miazkatu egiten zituztela. MB-k (2000, 185) <i>gatzarrieta</i> jaso du Artikutza-n ‘Lugar de Piedras Saleras’ esanahia eranstean diolarik.
–GOIKOETXEKO ELLORRA	B-C3	NTM-n <i>goikoetxe</i> ko <i>ilorra</i> , eta bertan adierazten dute <i>illor</i> abere eta artzaintzat egindako estalpea edo borda txikia dela. Informatzaileek berriz, esaten digute <i>ellor</i> -a dela hemen adierazitakoa, ezen <i>illor</i> ernari dauden abereek galdutako kumeari esaten baitzaio.
–GOIKOLA Goikolako arizdeye	D3	Horrela jaso dute NTM-n eta gaineratzen dute Martín Jauregik eraiki zuela 1802an. Duela

		hogeiren bat urte arte zutik egon da baserri edo ola, eta herrian bizi dira bertako azken biztanleak, Serafin Lasa eta bere semea Martin.
–GURPIDEGEIN	C5	NTM-n <i>gurpidegain</i> , horrela dokumentatua 1882an. <i>Gurdi</i> + <i>bide</i> + <i>gain</i> izango lirateke bere osagaiak, lehenean apokopea jasan duelarik, bigarrenean dardarkariaren ondorengo ezpainetako herskariaren txandaketa, eta hirugarrenean <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongoaren itxiera.
–IRAIGORRI Iraigorriko erreka	B4 B4	Ez dator NTM-n, eta XIX. mendeko mapan <i>yraigorri</i> ageri da. Lehen osagaiari dagokionez, <i>ira</i> , ez da herriko hizkeran erabiltzen, <i>ixtor</i> ('iraztor') baizik, baina badirudi hauxe dela toponimo honen kasua, <i>ira</i> + <i>-di</i> + <i>gorri</i> , hortzetako herskari ahostunaren galera suertatu delarik.
–IRUITTURRITE Iruittuerreka Iruiturriebuu	A3-4 A3 A3	Hau ere ez dator NTM-n, baina bai Arañazko mapan, <i>iruiturrieta</i> . Hortzetako herskaria palatalizaturik eta bukaerako bokalaren asimilazioa jasan ditu herriko burutzapenean: <i>iru</i> + <i>iturri</i> + <i>-eta</i> .
–IRUMUBETA	A3	Lehen eratorrian, silaba osoaren sinkopa dago. Harritzekoa bada ere, hau ere ez da ageri NTM-n, bai ordea Arañazko mapan, baina erdaraz adierazirik, ' <i>tres mugas</i> '. Etxarriko hizkeran ezpainetakoaren alde neutralizaturik ageri da herskari belare ahostuna, 'muga' hitzean, toponimo honetan eta beste batzutan ikus daitekeen moduan: <i>mubaats</i> (mugarats), <i>mubaasbuu</i> (mugarasburu), <i>mubeko iturri</i> (mugako iturri).
–ITTURRIUSEITTU	B2	NTM-n <i>iturrusaitu</i> , eta dokumentaturik <i>iturusaitu</i> (1765) eta <i>iturrisaitu</i> (1765). Hortzetako herskaria birritan ageri da palatalizaturik eta <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo itxiera ere bai. Usain txarreko ura isurtzen duen iturria izango litzateke. ("Aguas batuecas").
–JUANAGUSTIÑEN PATATATZIE	D3	Horrela jaso dute NTM-n. Aspaldiko pertsona baten patata soroa adierazten du toponimo honek. Aipagarria da <i>-tze</i> atzizkiak laborea adierazten duela.
–KANPOTXIKI	D6	Horrela ageri da NTM-n, eta dokumentatua: <i>campochiquia</i> (1702-1709), <i>campochiqui</i> (1893), <i>campochipia</i> (1711). Arañazko mapan <i>campoa</i> dator jasorik.
–KANPOZELEI	D6	NTM-n <i>kanpozelai</i> , eta dokumentaturik berriz, <i>campocelaya</i> (1886). Aurrekoarekin konparatuz, askoz eremu zabalagoa adierazten du, berriz ere <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo itxiera jasan duelarik.



-KATALINTXIKI	E5	NTM-n ere horrela ageri da, eta Arañazko mapan, berriz, ez dago jasorik. Etxe izenak ditugu toponimo honen lehen osagaiarekin eraikiak: <i>Kataliñena</i> (Arbizu), <i>Katalinzuri</i> (Etxarri).
-KATETXIE	C2	Ez da ageri ez NTM-n, ez Arañazko mapan. Herritarrek diotenez, garai batean bertan <i>Pian etxie</i> eta <i>Xegundo kamineruen etxie</i> izango genituzke, azken hau Nafarroako Diputazioarena izango zelarik. Bertan bizi omen ziren bidezaina eta katezaina, eta honek aduana moduko katea, errepidea mozten zuena, zaintzen zuen. Unanuko basoan zegoen erai-kuntza hau.
-KOSTIDIKO BIXKERRA	A4	Ez da ageri ez NTM-n, ez mapan. <i>Gorosti</i> + <i>-degi</i> + <i>-ko</i> izango litzateke bere lehen osagaia, bokal berdinen arteko dardarkari xamurraren galera eta herskari belareen arteko txandaketa jasan dituelarik fitonimoak, <i>k(o)osti</i> < <i>gorosti</i> . Morfema eratorleari dagokionez, gogoratu <i>-degi</i> erabiltzen dela Etxarriko hizkeran, eta ez <i>-di</i> , ondorengoa delarik bere bilakabidea: <i>-degi</i> > <i>-dei</i> > <i>dii</i> > <i>di</i> . (Ikus eremu honetako <i>buztindii</i> toponimoa). <i>Bixkerra</i> , bestalde, muinoaren parekoa dugu Etxarriko toponimian.
-LAKUNZARRAILZAN ZULUE	A3	Hau ere ez da ageri dokumentazioan. Era ezberdinetan entzun daiteke egun: <i>lakunzarragalduzaneko zulue</i> eta baita <i>lakunzarrailzane-ko zulue</i> . Argi dago noizbait lakuntzarraren batek heriotza aurkitu zuela aipatu tokian, eta horixe litzateke toponimoaren jatorria. Aipatzekoa da, berriro, <i>n,l,r</i> ondorengo txistukari frikarien aldeko neutralizazioa gertatzen dela: <i>lakunzarrailzan zulue</i> .
-LAPURBIDE	A3	Ez dute NTM-n jaso, baina Arañazko mapan <i>lapurbidea</i> ageri da. Etxarri eta Ataun-Goierrri lotzen zituen aspaldiko bidea izango genuke hau, eta dirudienez ez zen oso segurua, toponimo honetaz gain, ia eremu berdinean, <i>ben-tatxar</i> eta <i>zelatamuno</i> baititugu.
-LARTANILLOR	A4	Ez da ageri orain arte aipatutako dokumentuetan. Bi osagai izango lituzke: <i>lartan</i> , 'larre' hitzarekin erlazionatua eta <i>ellor</i> , txabola modukoa izango genuelarik (ikus eremu honetako <i>goikoetxeko ellorra</i> toponimoa. <i>Lartaneko</i> etxe-izena ere bada Etxarrin.
-LEÑUBE	C5	<i>Lañube</i> jaso dute NTM-n, eta <i>lañubea</i> ageri da Arañazko mapan. Hala ere, herritarrek <i>leñube</i> diotela jaso dute. Garbi dago, beraz, <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo itxieraren aurrean gaudela berriro.

-LORENZOON MONTTEI	D4	<p><i>Lorentzomintegi</i> NTM-n, baina herritarren burutzapen moduan, <i>lorenzomontteei</i>. Ez da ageri Arañazko mapan. Guk garbi jaso dugu antroponimoa edute genitiboaren morfemaz lagundurik, <i>lorenzoren</i> &gt; <i>lorenzoen</i> &gt; <i>lorenzoon</i>, bokal arteko dardarkaria galdu eta V<sub>1</sub>V<sub>2</sub> &gt; V<sub>1</sub>V<sub>1</sub> bilakatu delarik. Gogoratu <i>monttei</i> &lt; <i>m(u)integi</i> gizakiak egindako zuhaitz landaketa dela, kasu honetan Lorenzorena.</p>
-MAITZEGUR Maitzegurgenie Maitzegurgo argaziye	C4 C4 C4	<p>NTM-n <i>maizegur</i>, dokumentazioan <i>marizegur</i> (1791) eta <i>maizaur</i> (1916), eta Arañazko mapan guk jarritako moduan. Bigarren toponimo eratorriko <i>argaziye</i>, 'artare'-ari esaten zaio eta abereek miazkatu egiten zuten, gatzaren bila nonbait.</p>
-MALDABELTZ Joxanjeleniriyekbotazien zulue	C3-4 C4	<p>Ez da ez NTM, ez Arañazko mapan ageri. Toki aldapatsu eta arriskugarria adierazten du. 'Maldá'-k leku aldapatsua adierazten du. Beste toponimoa ere, ez da ageri dokumentuetan, eta duela denbora gutxikoa dirudi. Lehen osagaia Etxarriko etxe baten izena da, <i>Joxanjelena</i>. Beraz, ondorengoa izango litzateke bere esanahia: 'Jox(e)anjelen idiak bota ziren zuloa'.</p>
-MARTIINGO ZULUE Martiingo erreka Martiingo zabala	A-B3	<p>Ez dute jaso NTM-n, baina bai Arañazko mapan, <i>Martingo-zulua</i>. Toponimo hau aurreko <i>martiin</i>-en lekuko moduan geratu zaigu. Hala ere, aipatzekoa da <i>i</i> luzea duela burutzapen honek, eta horrek pentsarazten digu toponimo nagusia <i>Martinen</i> izan zitekeela, ondoren bokal arteko sudurkaria erori eta bokal asimilazioa gertatu direlarik.</p>
-MIGUEZ Miguezgo aranzaye Miguezgo erreka Miguezgo kueba Miguezgo liyesorue Miguezgo malkorra	C2 B-C2 C2 C2 B-C2 C2	<p>Horrela ageri da NTM-n, eta dokumentazioan <i>miuroz</i> (1882), <i>miguraz</i> (1932), <i>miguracecosarea</i> (1787). Arañazko mapan <i>miuraz</i> agertzen da. Badirudi 'migura'-tik datorrela. Horrela azaltzen du Karasatorrek (1993, 264): "El topónimo 'Miguracecosarea' 1787, E-A, suena hoy Miguez y Miguezoliñesoro". Lehen eratorrian, <i>aranzaye</i> &lt; <i>aran(t)zadegia</i> ageri zaigu, honen bilakabidea ondorengoa izan daitekeelarik: <i>aranzadegi</i> &gt; <i>aranzadei</i> &gt; <i>aranzadii</i> &gt; <i>aranzaii</i> + <i>-a</i> &gt; <i>aranzaiye</i>. Laugarrenean <i>liyesorue</i> &lt; <i>lihosoroa</i> daukagu, garai batean basoan egindako laborea gogoratzan duelarik. Honetan, <i>-h</i>-ren testigantza egiten duen <i>-y-</i> igurzkaria dugu.</p>
-OLANU Olanuko borda Olanuko zeleye Olanuko zerka	B3 B3 B3 B4	<p>NTM-n <i>olanuko zelaia</i> jaso dute, eta <i>olanua</i> Arañazko mapan. Garbi dago 'ola' dugula lehen osagaia, 'ola tokia' beraz hau ere. Karasatorrek horrela azaltzen du osagai hau: "... los topónimos con base en 'ola', se refieren a fe-</p>

		<p>rreras cercanas en el tiempo, como las de Bekola y Goikola en Etxarri-A., que son de 1802 y a las anteriores, las que no disponían de rueda hidráulica: Olanoa (E-A), Olaskomuno (B), Urrizola, Olazagutia ... y más de una decena a lo largo del valle, que pueden seguirse por los apéndices toponímicos”.</p> <p>Bigarren eratorrian, hasierako txistukaria afrikaturik ere entzun daiteke: <i>txeleye</i>.</p> <p>Azkenak, berriz, toki itxia, hesiaren modukoa adierazten du.</p>
-OLIYOARRITE	C4	<p>NTM-n <i>olioarrieta</i>, eta Arañazko mapan ez da ageri. Harri mota berezia agertzen digu toponimo honek, <i>-y-</i> igurzkariaren epentesia eta bukaerako bokal irekiaren asimilazioa jasan dituelarik. <i>Olio</i> + (<i>h</i>)<i>arri</i> + <i>-eta</i> ditugu bere osagaiak.</p>
-OSOIN Osoingene Osoingo itturriye Osoingo zabala	B-C6 B-C6 B-C6 B-C6	<p><i>Orosoain</i> ageri da NTM eta Arañazko mapan, horrela dokumentaturik 1758an eta <i>orosoin</i>, berriz, 1873an. Garbi dago, hala ere, egungo burutzapena bokal arteko dardarkaririk gabekoa dugula, ondoren bokal murrizpena ere jasan duelarik.</p> <p>Gogoratu ‘zabala’ ‘zelaia’-ren parekoa dugula Etxarrin.</p>
-OTXENTA	A-B3	<p>NTM-n baino ez da ageri, eta hemen ere guk hartutako moduan. Badirudi ‘otso’ hitzarekin zerikusia duela, eta bigarren osagaia <i>benta</i> izan daiteke, inguruko beste toponimo batean ageri den moduan, <i>bentatxar</i>. ‘Otso lekua’ adieraziko luke, beraz, eta hauxe izango litzateke bere bilakabidea: <i>otsabenta</i> &gt; <i>otsaenta</i> &gt; <i>otseenta</i> &gt; <i>otsenta</i>. MB-k <i>otsola</i> (<i>otso</i> + <i>ola</i>) aipatzen du Berueten, <i>otsondo</i> (<i>otso</i> + <i>ondo</i>) Amaiurren eta <i>otxasko</i> (<i>otso</i> + txikigarria) Arizkunen.</p>
-PRESAZARRA	C6	<p>Toponimo nahiko berria dugu hau, Arakil ibaian Gipuzkurako errepide ondoan presa berria egin zenetik erabilia, eta horrexegatik ez da ageri beste bi dokumentuetan. Aipatzekoa bigarren osagaiak jasan duen bokal murrizpena.</p>
-SANADRIN Sanadringo bigerna txabala Sanadringo lendaziko txabala Sanadringo loigeiztue	A5 A5 B5 B5	<p>Ez da ageri NTM-n eta Arañazko mapan <i>San Adrian</i> jaso dute. Toponimoaren eremuan bertan San Adrian-en basiliza dago, duela urte gutxi berritua. Ondoko hariztian, ekainaren 16an, etxarriarrentzat urteko egunik handiena ospatzen da, goizetik gauerainokoa.</p> <p>Lehen eta bigarren eratorrietan, sinkopak ditugu ordinaletan, bokal batena lehenean (<i>bigerrrena</i>), eta silaba osoarena bigarrean (<i>lendabizi</i>), bokal murrizpena ahaztu gabe.</p> <p>Azken eratorriari dagokionez, gogoratu aurre-</p>

		koren batean esandakoa, <i>loigeiztue</i> leku lohitsu delá, baina oso lohi itsaskorrez osatua, bertan guriak ezin mugituz geratzen zirelarik.
–SANTATRITIKO MONTTEYE	B5	NTM-n <i>santatritei</i> eta Arañazko mapan <i>sandratia</i> jaso dute. Zenbait etxarriarrek <i>santateiteko</i> ere esaten du. Dokumentazioan <i>sandian-dere</i> (1794) ageri da. NTM-n ‘San Adrian’-en euskal izena izan daitekeela diote, baina gure ustean, gertuago legoke <i>Santa Trinitate</i> -tik, ondorengoa izan zitekeelarik bere bilakabidea: <i>trinitate</i> > <i>trintate</i> > <i>tritrate</i> > <i>tritae</i> > <i>tritei</i> . Toponimoaren bigarren osagaia, ‘m(u)ntegi’ izango litzateke.
–SOAZUI	D5	<i>Sarazuri</i> agertzen da bai NTM-n, bai Arañazko mapan. Eta horrela izango lirateke bere osagaiak, <i>soro</i> + <i>zuri</i> , dardarkari xamurra bi osagaien kasuan galdu delarik, eta kontuan izanik hitz konposaketan, <i>-o-z</i> bukatutako lexekek bokal erdi ireki hau irekitzeko joera izaten dutela: <i>astaputz</i> , <i>lepame</i> , ...
–SONBELAPE	B-C2	Horrela ageri da NTM-n, eta dokumentaturik berriz <i>somberlape</i> (1846), eta Arañazko mapan <i>sombelape</i> . Oso toki itzel eta freskoa dugu toponimo honen eremua, ‘sombra’ edo ‘sombbrero’-tik agian.
–TXAIGORRI Txaigorriko itzela Txaigorriko liyesoruek Txaigorriko zabala Txaigorriko jentilzulue	B3	NTM-n <i>txaradigorri</i> , eta horrela dokumentaturik: <i>charadigorri</i> (1777), <i>charadigorrigaia</i> (1707) eta <i>charaigorri</i> (1917). Arañazko mapan <i>charaygorri</i> . Toponimoaren lehen osagaiak ondorengo bilakabidea izan du, seguruenik: <i>txaradegi</i> > <i>txaradei</i> (herskari belarearen galera) > <i>txaradi(i)</i> (VV > VV > V) > <i>txarai(i)</i> (hortzetako herskariaren galera) > <i>txaai</i> (bokal berdinen arteko dardarkari xamuraren galera) > <i>txai</i> (bokal murrizpena). <i>Txaradegi</i> -a zuhaitz (pagoak, bereziki) lirain eta luzez osaturiko eremua dugu. MB-k (2000, 367) horrela azaltzen du: “Literal ‘Jarl Rojo’, más apropiado ‘Raso del Jaral’. Del vasco <i>txarra</i> ‘planta joven de cualquier especie forestal’, el sufijo abundancial <i>-di</i> y <i>gorri</i> ‘rojo, pelado’”. Lehen eratorriak, toki iluna, eguzkirik gabekoa, adieraztendu. Bigarrenak eta hirugarrenak ‘lihosora’ eta ‘zelaiá’, eta azkenak, tontorrean bertan dagoen trikuharria.
–TXUITTUZARRETA	B4	NTM-n <i>txuritutzarreta</i> , eta erdal grafiaz dokumentaturik (1882). Arañazko mapan <i>churichuzarreta</i> . Bokal arteko dardarkaria galdu eta hortzetako herskaria palatalizaturik dugu egungo burutzapenean. ‘ <i>Txuittu</i> ’-k azala

		kentzea adierazten du, hau da, zuhatzik gabe-ko lekua, aspaldikoa ( <i>zar</i> ), aurrerago herriaren hegoaldeko eremuan aurkituko dugun <i>larrutu</i> toponimoaren parekoa.
-UBONDO Ubondoko erreka	C3	Ez da NTM-n ageri, baina bai Arañazko mapan, <i>urondoa</i> . Horixe izango litzateke bere jatorria, ezen ohikoa baitugu Sakanako hizkeran herskariaren epentesia <i>u-</i> bokalaren ondoren: <i>uberte</i> (Uharte < urarte), <i>ubeldia</i> (uraldea)...
-URBIJOTZENDENZUI	B5	Ez da ageri ez NTM-n, ez Arañazko mapan, eta harritzekoa da, oso ezaguna baita herritarren artean, San Adriango erromeria egiten den bide ondoan dagoelako. Toponimoak berak esaten duen moduan ( <i>ur + bi(k) + jotzen + d(u)en + zu(b)i</i> ), zubiaren ondoan bi ur korronte elkartzen dira, <i>iruittuerreka</i> eta <i>iraigorriko erreka</i> .
-URDINTARRAN TXABALAK	B-C5	Ez da ageri beste dokumentuetan. Harritzekoa bada ere, herritar askori entzun dakiok horrela, hortzetako herskari ahoskabeaz, normalean ahostunaren alde neutralizatzen bada ere herriko hizkeran <i>n</i> , londoren: <i>urdindarra, einda</i> (eginda), <i>buztindei, madrildarra</i> ... 'Urdi(ai)ndarra(re)n' zelaia izango genuke toponimoaren adierazpena.
-URRIZGEIN Urrizgeingo argaziye Urrizgeingo txabala	C-D4	NTM-n ez da ageri, eta Arañazko mapan <i>urrizgain</i> eta baita ' <i>alto de urtizgain</i> ' ere. Badirudi, bigarrenaren kasuan metatesia gertatu dela, eta lehenean, gehienetan bezala, arautzeko joera jarraitu dutela, kontuan izan gabe herriko hizkeraren <i>n,l,r</i> ondorengo txistukari frikariaren aldeko neutralizazioa eta <i>ai &gt; ei</i> diptongo itxiera. <i>Urritza + gain</i> izango lirateke bere osagaiak. Eratorriak azalduta dauzkagu aurreko toponimoetan.
-URRIZPE(TA)KO ERREKA	B3	Horrela, <i>urrizpeko</i> , ageri da NTM-n. Zalan-tza bakarra leku-genitiboa singularrean ala pluralean erabili behar den izango litzateke, bi burutzapenak baitaude bizi-bizirik herritarren artean. Oraingoan <i>urriz + -pe + -etako</i> ditugu bere osagaiak.
-XARMIÑAUNDIKO MONTTEYEK	C5	NTM-n soilik <i>sagarminiñondo</i> ageri zaigu eta mapan ez dute jaso. Argi dago <i>sagarmin + aundi</i> direla lehen zatiko osagai nagusiak. Ohikoa dugu herriko hizkeran hasierako txistukariaren bustidura hitz honetan: <i>xarmin &lt; sarmin &lt; saarmin &lt; sagarmin</i> . Bestalde, <i>monttei</i> 'mintegi' izango genuke, lehenago aipatu dugun moduan.
-ZA(R)API	F4	Dardarkaridun burutzapena dator NTM-n, 1927an dokumentatua, eta Arañazko mapan

		aldiz, <i>zaapi</i> . Gaur egun biak erabiltzen dituzte herritarrek.
-ZAMAL Zamalgeñe	D4 C-D4	Horrela ageri da Arañazko mapan, baina ez dute jaso NTM-n. Dorraoko basoan dago toponimo nagusia, eta Etxarrikoan sartzen da mendigain lerroa, <i>zamalgeñe</i> , <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo itxiera eta palatalizazioa jasan dituelarik.
-ZELATAMUNO	A3	Ez da ageri NTM-n, eta Arañazko mapan, aldiz, <i>celatomunua</i> . ‘Zelatan egin’-teko tontorra edo ‘mu(i)noa’ izango genuke, eta chizarako leku egokia izateaz gain, kontuan izanik eremu berdinean <i>bentatxar</i> eta <i>lapurbide</i> toponimoak ditugula, ez legoke gaizki Goierrirentz edo handik bueltan zebiltzanak ‘zelata’-tzeko lekua izan zitekeela pentsatzea. BB-n (1993, 358) Karasatorrek ondorengoa dio: “Es un topónimo en E-A sobre el paraje de Otxenta; lo que nos hace pensar en la existencia de alguna lobera”.

c) Lizarragabengoako eremuak:

-AITZURDIN Aitzurdinpe	F4	NTM-n <i>altxurdin</i> jaso dute. <i>Aitz</i> + <i>urdin</i> izango lirateke bere osagaiak. Zenbait hiztuni <i>aintzurdin</i> ere entzun dakioke. Toponimo eratorriaren kasuan, <i>-pe</i> morfema eratorlea erantsi zaio.
-AIZTXIKIYEEN BUUBA	F4	Aurreko eta ondorengo toponimoen artean kokatzen da geografikoki ere. ( <i>h</i> ) <i>aitz</i> + <i>txikia</i> - <i>ren</i> da bere lehen osagaiaren osaketa, edute genitibodun burutzapenak ondorengo bilakaera izan duelarik: <i>txikiaren</i> > <i>txikiyaren</i> (/y/ kontsonantearen epentesia) > <i>txikiyaen</i> (bokal arteko dardarkariaren galera) > <i>txikiyeen</i> (V <sub>1</sub> V <sub>2</sub> > V <sub>2</sub> V <sub>2</sub> ). Bigarren osagaiaren kasuan, berriro dardarkariaren galera, eta /b/ kontsonantearen epentesia gertatu dira.
-ALTXORROTX	F4	Horrela jaso dute NTM-n, eta Arañazko mapan <i>peña de aizchorroch</i> . <i>Aitz</i> + <i>zorrotz</i> dira bere osagaiak, eta lizarragabengoarrek diotenez, lehen oso zorrotza omen zen malkor hau, arrubi moduan erabili zen arte. Bigarren osagaiko txistukariak palatalizaturik ageri zaizkigu. MB-k (2000, 41), <i>aitzorrotz</i> jaso du Andia mendian, Dorrauko eremuan eta horrela azaltzen du: “Peña Aguda. Del vasco <i>haitz</i> ‘peña’ y <i>zorrotz</i> ‘aguda’.”
-AREÑABARNA	F4	Ez da ageri ez batean, ez bestean. Arbizuko dermioan, bestalde, <i>areña</i> dago. Beraz, to-

		ponimo honetan, bigarren osagaia sinkopatua izango genuke: <i>barrena</i> > <i>barna</i> . Karasatorrek (1993, 78-79) ondorengo esaten du: “En 1652 aparece escrito indistintamente como Araña y Arana. (...) Así como est referencia a ‘Sanso Uarrateiz in Arania’ (1143, M. Arigita: Historia ... p.204, doc. N° 22)”.
-ARISOO	F5	NTM-n <i>arisoroeta</i> jaso dute eta Arañazko mapan ez da ageri. <i>Arisoo</i> ere entzun omen daiteke Lizarragabengoan, beraz nahiko garbi geratzen dira bere bi osagaiak: ( <i>h</i> ) <i>area</i> + <i>soro</i> . Lizarragabengoan, Arbizun eta Arruazun bezala, ez da hitz bukaerako bokal irekia asimilatzen: <i>luze</i> + <i>-a</i> > <i>luzia</i> , ( <i>h</i> ) <i>are</i> + <i>-a</i> > <i>aria</i> . ‘Haredun soro’-a izango genuke toponimo honetan adierazitakoa.
-BURGALDE	G4	NTM-n ere <i>burgalde</i> , bokal irekia asimilatu gabe jaso dute. Badirudi Arbizun berriz, burutzapen asimilatua erabiltzen dutela: <i>burgelde</i> . <i>Burgo</i> + <i>alde</i> lirakeke bere osagaiak, harri-garria suertatzen bada ere lehena, basoa baita toponimo honen eremua, eta ez dirudi bertan herririk izan denik.
-ERDON(T)ZA Bi udsen erdiya Burnisko zuya Guutzeko langa Paletasoo Tellasoo Txipoteta Zoto	F5	NTM-n afrikatuaren alde neutralizaturik, <i>erdontza</i> , jaso dute, baina dokumentazioan txistukari frikariz agertzen da: <i>erdonza</i> (1701). Ez da Arañazko mapan ageri. Karasatorrek (1993, 152) ‘Erdozia’ ertaroko herro galduarekin erlazionatzen du: “En la zona hay algunos topónimos, con los que el nombre de Erdozia parece establecer alguna relación: ‘erdonezgui’, 1781 en E-A hacia Aralar y Putterri; ‘Erdonza’, Lizarragabengoa; ‘Erdoiza’, sima en Urbasa...”. Lehen eratorrian, ederki ikus daiteke nola ozendu den hiztun askok burutzen duen /ts/ hortzobietako afrikatu ahoskabea, <i>utse</i> (ura) > <i>udse</i> . Bigarrenean, instrumental kasuko bizkarhobietako igurzkari ahoskabea (/z/), hortzobietako (/s/) bihurtzen da, Nafarrera gehienez bezala: <i>burnizko</i> > <i>burnisko</i> . <i>Txipoeta</i> dator NTM-n eta ez da ageri mapan. ‘Txipo’ lekua izango genuke toponimo honen eremua, beraz. Azkena ere horrela dago jaso NTM-n.
-GEÑEKO ZELEYA Itturiondua Malasoo Olako entrada Pixtusoo Zopoko buuba	F-G4	NTM-n <i>gaineko zelaia</i> jaso dute eta ez da ageri mapan. Bi aldiz gertatu da <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo itxiera. Bestalde, ez da bukaerako bokal irekia ixten asimilazioa dela eta. Toponimo orokor honen barruan beste bost toponimo txiki hauek daude. Eta laugarrenari dagokionez, esaten digute garai batean tre-

		<p>nak inguru horretan beti jotzen zuela txistua (<i>pixtu</i>-a Sakanan), eta horregatik esaten diotela horrela. Argi dago <i>soo</i> ‘soro’-tik datorrela. Bestalde, azkena NTM-n <i>zopotoburu</i> jaso dute eta mapan, berriz, ez da ageri. Ez dakigu zer esan nahi duen lehen osagaiak, baina badago Lizarragabengoako eremuan antzeko toponimoa, <i>zoto</i>. Bigarren osagaian bokal berdinen arteko dardarkaria galera eta /b/ kontsonantearen epentesia suertatu dira.</p>
–INTXUSPE	F5	<p>NTM-n <i>intsuspe</i> eta Arañazko mapan <i>ynsuspe</i> ageri zaizkigu, eta azken burutzapen hau, txistukari igurzkariduna, erabiltzen da Etxarrin ere: <i>insuspe</i>. Dokumentazioan bi burutzapenak ageri dira: <i>insuspea</i> (1696, 1900), <i>insusbea</i> (1702), <i>inchuspea</i> (1840), <i>ysuspea</i> (1893), <i>ynchuspea</i> (1893), <i>insuspe</i> (1934). Bestalde toponimo hau Arakil ibaiaren bi aldeetara hedatzen da Lizarragabengoa eta Etxarriko eremuetan. NTM-n ‘intsusa’-rekin erlazionatzen dute, baina guk ez dugu horrela uste, Sakanan <i>luxintxa</i> baita aipatu landarearekin erabiltzen den terminoa, eta bada landare hau erabiltzen duen toponimo bat gutxienez Etxarrin: <i>luxintxitturri</i>. Bestalde OEH-n (IX, 436) ‘intxauspe’ eta ‘intxausti’ daude jasoak, eta bigarren honen bilakaera horrela adierazten dute: <i>in(t)zaur-tze + -di &gt; *in(t)zaur-s-ti &gt; in(t)sausti</i>, txistukarien asimilazioa aipatzen delarik. Etxarrin <i>insuspe</i> toponimoa izateaz gain, <i>Insausti</i> etxe izena ere badugu, beraz errazago iruditzen zaigu ondorengo bilakabide hauxe proposatzea toponimo honentzat: <i>in(t)zaur-tze + -pe &gt; *in(t)zaur-s-pe &gt; in(t)sauspe &gt; in(t)suspe</i> (<i>au &gt; u</i> monoptongazioa gertatu delarik). Horrela beraz, ‘intxaur’-ean izango luke bere jatorria toponimo honek.</p>
–IRUNGO SARIA Irungarreko zulua	F4	<p>NTM-n <i>irungo sarea</i> eta <i>irungo errekazulo</i> jaso dituzte, eta Arañazko mapan, <i>yrungosarea</i>. Gogoratu Etxarrin ez bezala, Lizarragabengoan <i>-e + -a &gt; -ia</i> eta <i>-o + -a &gt; -ua</i> ematen duela.</p>
–KAXTAONdua Kaxtageñaldia	F5	<p>NTM-n soilik eratorria ageri zaigu, <i>kasetageñaldea</i>. ‘Kaseta’-k <i>-e</i>- bokalaren sinkopa jasan du.</p>
–MIRUETA Miruetapunta	F4	<p>Horrela ageri da bai NTM-n, bai Arañazko mapan. Badirudi ‘miru’-tik datorrela, eta egun ere erabiltzen da Sakana erdialdeko hizkeran ornitonimo hauxe: <i>ttittemeru</i>. Esaera eta guzti entzun daiteke oraindik Etxarrin aipatu ornitonimo honekin burutua: <i>Ttittemeru ollojanzale, alkatie atzeti!</i>.</p>
–ONTZARRUIYA Ontzarruibuuba	F4	<p>Ez da ageri aztertu ditugun dokumentuetan. Bere bi osagaiak ondorengoak dira: <i>ontz +</i></p>



		<i>arrubi</i> , bigarrenaren kasuan ezpainetako herskari ahostuna galdu delarik. Harrobi zaharren bat hartua izango lukete egoitatzat ontzek, nonbait.
-UBEEIA Larrezarra Putzuaundi Sanpedroputuzu Siyetsa Sooaundi Txatxulen Zimurdiñeta	F5	Ez da ageri NTM-n, baina bai Arañazko mapan <i>ubarea</i> moduan, eta Patxi Flores-ek digunez, <i>uberea</i> agertzen omen da zenbait eskrituratan. Seguru aski <i>ur</i> + <i>harea</i> -tik datorkigu, oso ohikoa baita esparru osoan ‘ur’ osagaitzat duten hitz konposatuek, dardarkariaren galeraren ondoren, /b/ kontsonantearen epentesia jasotzea: <i>Uberte</i> (Uarte > Uharte), <i>ubelde</i> (uralde > uhalde). Ibai ondoko lurra patzen ditu toponimo honek, hau da, urek utzitako hareez osatuak. Bigarren eratorria horrela jaso dute NTM-n, eta mapan ez da ageri. Argi eta garbi ageri zaizkigu toponimo honetan bi osagaiak. Ura ateratzeko ‘putzu’ handia adieraziko luke. Azkena, ez da ageri mapan, ezta NTM-n ere. Azken honetan <i>zumurdiñeta</i> ageri da, baina Etxarriko beste eremu batean. Eta horrela da, Etxarri ere badugu horrelako toponimoa, hasierako silabako bokala txandakatzen delarik hiztunaren arabera. Bere osagaiak, begibistakoak ditugu: <i>zuma</i> + <i>urdin</i> + <i>-eta</i> .

d) Arakil ibaitik Sakanako autobiderainoko eremuko toponimoak:

-AGAABIYE	C7	NTM-n eta Arañazko mapan <i>agarabia</i> , eta dokumentaturik lehenan: <i>adarabia</i> (1699), <i>agarabia</i> (1766), <i>agabia</i> (1927). Dardarkariaren galeraren testigantza bokal luzapenan ikus daiteke.
-AIZELKO Aizelkondo	C-D6-7 D7	NTM-n eta mapan <i>arizalko</i> , eta dokumentaturik: <i>aricalzo</i> (1702), <i>arizalco</i> (1711). Garbi geratzen da toponimo honetan ere, Etxarriko hizkeraren bokal arteko dardarkariaren galera eta bokal asimilaziorako joera.
-AKITTU	D6	NTM-n <i>akitau</i> eta mapan <i>aquitaur</i> jaso dituzte. Dokumentazioan berriz: <i>aquitau</i> (1696-1887-1925), <i>aqitan</i> (1704-1705-1730-1893), <i>aquetoa</i> (1893), <i>aquitana</i> (1893). <i>-ano</i> atzizkidun burutzapena dirudi dokumentazioaren arabera, monoptongazioa ( <i>au</i> > <i>u</i> ) eta palatalizazioa jasan dituelarik: <i>akitano</i> > <i>akitao</i> > <i>akitau</i> > <i>akitu</i> > <i>akittu</i> .
-ALDABE	F6	NTM-n ez da ageri, eta mapan <i>aldabea</i> . Arbizuko dermioan dago toponimo hau, ‘Utzuber’-go basoarekin mugan.

–ALDAPASO(R)O	E6	Ez da ageri ez NTM-n, ez mapan. Hizkera bizian dardarkaria galdu egiten da, baina azken urteetan auzo oso bat eraiki denez bertan, burutzapen formalizatua nagusitu da azken aldian. Gaur egun ez da aldapa ia nabaritzen, baina urte gutxi dira, hogeitamarren bat gehienera, mendixka ( <i>malkarramendi</i> ) eta ondoren ‘aldapa’ garbi ikus zitekeela. Egun ere, <i>akittu</i> eta <i>zengittu</i> aldera soro ‘aldapatsu’-ak genituzke.
–ANDREMAIONDO	E6	Hau ere ez dago jasorik. <i>Andre Mari</i> -ren ermita inguruari esaten zaio horrela. Ermitari berari ere, hiztun gehienek <i>andremaye</i> esaten diote, berriro ere dardarkariaren galera nabarmentzen delarik.
–ARLUZEPE	E6-7	NTM-n <i>arluzape</i> , eta dokumentaturik <i>arluzapea</i> (1886). ( <i>h</i> ) <i>arri</i> + <i>luze</i> + <i>-pe</i> izango lirateke bere osagaiak.
–ARRAXAXOOTA	E6	NTM-n <i>arrosasoroeta</i> , eta dokumentaturik: <i>arrosasoroeta</i> (1882), <i>arrosoreta</i> ((1893), <i>arrosasoroeta</i> (1927). NTM-n <i>arrosa</i> + <i>soroeta</i> -tik eratorten dute, baina gure ustean, lehen osagaia <i>arraso</i> izango litzateke, ‘raso’ esanahiaz gain ‘erabat’-en zentzua izan baitezake, soroak baino ez daudela adierazi nahirik edo. Bestalde, <i>-eta</i> morfema eratorlea maiz erabiltzen da inguruko toponimian: <i>azkonarzulota</i> , <i>arginbuuta</i> , <i>arkueta</i> , <i>aangorta</i> ...
–ARRITTUBELDE	F5	NTM-n <i>arritubalde</i> , eta dokumentaturik <i>arritubaldea</i> (1696). Bigarren osagaia <i>ubelde</i> izango litzateke, nahiz eta Etxarrin ‘ibai’ erabili, toponimo hau Arakil ibaiaren ondoan baitago. Hortzetako ahoskabearen palatalizazioa eta bokal asimilazioa izango genituzke gertara fonetiko-fonologiko moduan.
–ARROTXEPE	E6	Ez dago jasorik beste dokumentuetan. Gure ustean <i>arotz</i> + <i>etxe</i> + <i>-pe</i> izango lirateke bere osagaiak. ‘Arotz’-a ez litzateke Etxarrin zurgina izango, errementaria baizik. <i>Arretxepe</i> burutzapena ere oso erabilia da. Etxe baten izea, bestalde, toponimo honen eremuan dagoena, <i>Arretxepekue</i> dugu Etxarrin.
–ASTITXU Errotaberrye	F5	<i>Astixau</i> NTM-n ea <i>astichao</i> mapan ageri dira. Eta dokumentaturik lehengoan: <i>astichau</i> (1711-1765-1868-1899-1927), <i>astichan</i> (1893-1915), <i>artichan</i> (1893), <i>astichano</i> (1893), <i>astichao</i> (1900). <i>Akittu</i> -ren kasuan bezala, badi-rudi <i>-ano</i> atzizkiaz bukatutako toponimoa izan daitekeela, ondoengo bilakabidea izan duelarik: <i>astitxano</i> > <i>astitxao</i> > <i>astitxau</i> > <i>astitxu</i> .

		NTM-n <i>errotaberria</i> jaso dute. Zutik dirau oraindik, eta berriturik azken urtean, Arakil ibai ertzean.
<b>-BAATZETA</b> Baatzetatziki	E5	NTM-n <i>baratzeta</i> , eta mapan <i>baraceta</i> . Horrela ageri da dokumentaturik: <i>barazeta</i> (1701-1709-1730), <i>baraceta</i> (1893-1915), <i>baceta</i> (1893). Baratze lekua izango genuke, ibaiaren ondoan baitago hau ere. Berrito ere, dardarkariaren galera, eta <i>-eta</i> atzizki eratorlea.
<b>-BARTANITTURRI</b>	E6	Ez da ageri beste dokumentuetan. 'Bartan'-ak polainen modukoak izaten ziren, eta dirudienez, iturri honetan jartzen zituzten beretzen, ondu gabeko behi larruz egindako 'bartanak', hurrengo egunean bigunago izateko. Lehenago 'Lete'-ren etxeko hormaren kontra egoten omen zen iturri hau, eta gero egungo tokira eraman zuten.
<b>-BATALLA</b> Batallako bixkerra	F6	NTM-n <i>batallako bizkarra</i> jaso dute. Egungo adituek ere soilik toponimo eratorria erabiltzen dute. <i>Bixkerra</i> 'muino'-aren parekoa izango genuke, txistukaria palatalizaturik, ezen bestela, palatalizatu gabe, 'sorbalda'-ren zentzua izango luke. Asimilazio aurrerakaria ere jasan du.
<b>-BERJERA</b>	E6	NTM-n ere horrela jaso dute, eta dokumentazioan: <i>bergera</i> (1701-1893), <i>berjera</i> (1915). Okzitanieratik, 'vergier', hartutako burutzapena izango genuke, eta Nafarroan zehar lorategi eta baratzaren zentzuan erabili da. Ez da harritzekoa, beraz, Etxarrin elizaren atzekalde guztiari horrela esatea. Bestalde, <i>Bertxerra</i> etxe izena ere badugu, eta NTM-n ondorengo bi burutzapenak jaso dituzte Ollakarizketan: <i>bercheraguibela</i> (1749), <i>bergelaguibela</i> (1683).
<b>-BIZKAIN</b> Bizkaingo bixkerra	F7	<i>Bizkagain</i> NTM-n eta <i>vizcaygaña</i> Arañazko mapan. Dokumentazio ugaria agertzen dute: <i>bizcagaña</i> (1701), <i>bizcagaiña</i> (1766), <i>vizcagaña</i> (1886-1887-1893), <i>vizcargaña</i> (1886-1889), <i>vizcaino</i> (1893), <i>bizcaina</i> (1893), <i>bizcaña</i> (1893-1915), <i>vizcañe</i> (1893), <i>viccaiña</i> (1893), <i>vizcaña</i> (1893) <i>biscagaña</i> (1915), <i>bizgaña</i> (1915). Aipatzekoa da burutzapenen ugaritasuna 1893 urtean. Badirudi <i>bizkar</i> + <i>-gain</i> litzatekeela bere osaketa, baina bitxia suertatzen da ikustea nola berrito, burutzapenaren jatorria ahaztua nonbait, osagai berbera, <i>bixker</i> , hartu duen toponimo eratorrian.
<b>-BUREÑA</b>	F6-7	NTM-n <i>burañako bizkarra</i> eta mapan <i>buraña</i> . Dokumentazioa: <i>burana</i> (1696-1700-1701), <i>buragaña</i> (1707), <i>buraña</i> (1712-1730-

		1893-1915-1927), <i>guraña</i> (1893), <i>gurañe</i> (1893), <i>gurenia</i> (1893), <i>bulaña</i> (1915). Egungo burutzapenak <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo itxiera jasan du: <i>buru</i> + <i>gaina</i> > <i>burugeiña</i> > <i>burueiña</i> > <i>bureiña</i> .
-DANBORRO	C-D6	Modu berean jaso dute NTM-n, eta ez da ageri mapan. Dokumentazio ugaria du: <i>ganborro</i> (1704), <i>damborro</i> (1886), <i>tamborroa</i> (1886), <i>damborroa</i> (1890), <i>tamborro</i> (1893), <i>damboro</i> (1893), <i>gamborro</i> (1893), <i>donborro</i> (1915). Ez dakigu nondik datorren.
-ELIZKORTA	E6	Ez da ageri beste dokumentuetan. Elizaren atzekaldeko eremuari esaten zaio, egun kultur etxea dagoen lekuari. ‘Korta’ hitzak etxe edo eraikuntzen atzekaldea adierazten du.
-ELORDIKO TXULUE Elordiko bixkerra	F6	NTM-n <i>elordiko zuloa</i> . Lehen osagaiko atzizki eratorlea <i>-degi</i> izango litzateke, hizkera arruntean ere, horrela burutzen baita: <i>elordiye</i> < <i>elordiye</i> < * <i>elordeiye elordegiye</i> . Bigarren osagaiari dagokionez, hasierako txistukaria afrikatu egin da: <i>zulue</i> > <i>txulue</i> .
-ERAGA Eragako bixkerra	E-F6 F6	Modu berean ageri da NTM-n, eta mapan berriz, <i>eragar</i> . Dokumentazioan ere horrela ia beti: <i>eraga</i> (1702-1730-1893), <i>heraga</i> (1887-1893). Morfema eratorlea, <i>-aga</i> , baino ez zai-gu garbi ageri. Toponimo eratorrian berriro txistukari palatalizatua eta bokal asimilazioa jasan duen burutzapena: <i>bizkarra</i> > <i>bixkerra</i> .
-GALBAYOTA	E6	Ez dago jasorik beste dokumentuetan. Bere bilakabidea ondorengo litzateke: <i>kalbario</i> + <i>-eta</i> . Ahostunaren alde neutralizatu da hasierako herskari belarea, eta bokal arteko dardarkaria galdu. Garai batean, ‘via crucis’-aren gurutzeak bertan izango lirateke ‘ <i>andremayondo</i> -an.
-INSUSPE	F5	(Ikus Lizarragabengoako <i>intxuspe</i> )
-KALAMURTXEI Errotazar	E6	NTM-n <i>kalamurtxegi</i> dago jaso, eta dokumentaturik: <i>calamurhegui</i> (1886), <i>calamurchey</i> (1886), <i>calamurtegui</i> (1886), <i>calamuchia</i> (1893), <i>calamurchi</i> (1893). ‘Kalamu’ landarez beteriko <i>ur</i> + <i>-tegi</i> -a izango genuke, non bokal arteko herskari belare ahostunaren galera eta hortzetako ahoskabearen palatalizazioa suertatu baitiren. Arakil ibaia eta ‘errotazar’-aren ondoan dago. Eraikuntza honen paretak baino ez dira zutik gelditzen.
-KANPOSANTUZAR	E6	Garai bateko ‘hilerria’ izango genuke. Ez dator beste dokumentuetan, eta hiltegi zaharraren aldamenen kokatzen zen, <i>elizkorta</i> eta <i>berjerra</i> ondoan, <i>sooberta</i> -rako bidea hasten den tokian.

-KAXPARSOOTA	F6	NTM-n <i>kaxpasoeta</i> eta mapan ez da ageri. Guk, 'Gaspar' antroponimotik eratorria dela uste dugu, hasierako herskari belarea ahoska-be bihurtu delarik. Bestalde, bokal berdinen arteko dardarkaria galdu da. 'Gaspar'-en <i>soro</i> + <i>-eta</i> izango genituzke, beraz, bere osagaiak.
-LARREÑETA	E6	Ez da ageri NTM-n, eta mapan ere ez. Etxarrin <i>larreñe</i> 'pentze', 'larre' edo 'belardi'-ren sinonimoa dugu. Beraz, belardi asko dagoen tokia adierazten du toponimo honek. <i>Larrain</i> + <i>-eta</i> . Hemen ere nabaria da <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo itxiera.
-LARREÑONDO	E6	NTM-n <i>larrañondo</i> , eta dokumentatua: <i>larrainondoa</i> (1696-1704), <i>larrañaondoa</i> (1765), <i>larrañondoa</i> (1893-1915), <i>larrañongoa</i> (1893), <i>larranondoa</i> (1893-1915). Aurrekoaren ondoan dago, beraz argi ikus daiteke bere esanahia.
-LURLOI	E7	NTM-n mugatu gabe eta Arañazko mapan mugaturik, burutzapen bera jaso dute bi dokumentuek, <i>lurlodi(a)</i> . Dokumentazioan berriz: <i>lurlodia</i> (1696-1709-1890-1893-1915), <i>lurcodia</i> (1702), <i>lurloguia</i> (1890-1893), <i>lurloquia</i> (1893), <i>lurdolia</i> (1893), <i>lurludia</i> (1893), <i>lurloya</i> (1893). Dokumentazioaren arabera, badirudi <i>lur</i> + <i>lodi</i> izango genituzkeela bere osagaiak, baina azken burutzapen dokumentatua eta egungoa alde batetik, eta hortzetako herskari ahostuna ez dela normalean erortzen kontuan izaten badugu beste aldetik, agian <i>lo(h)i</i> pentsatu beharko genuke dela bigarren osagaia. Bestalde, eremu nahiko zabala da, <i>soro</i> lekua, eta lur lohitsuak ugari dira bertan.
-MALKARRAMENDI	E6	Horrela ageri da NTM-n, eta dokumentaturik: <i>malcarramendi</i> (1691-1893-1915), <i>malcarramendia</i> (1699), <i>macarramendi</i> (1715), <i>malcorromendi</i> (1893), <i>malcaramendi</i> (1893), <i>malearramendi</i> (1893), <i>malcarromendi</i> (1915). Hau horrela ikusirik, badirudi <i>malkar</i> + <i>mendi</i> izango lirakeela bere osagaiak, are gehiago Etxarrin baben lastoari horrela, 'malkar', esaten zaiola jakinik, eta metatu egiten zela gero erretzeko. Hala ere, bitxia da Rafael Karasatorrek Nafarroako Artxibategi Orokorrean aurkitutako dokumentuan agertzen den burutzapena, <i>markalamendi</i> , eta honen arabera metatesia izango genuke. Dokumentua 1620koa da, eta Arbizuko abadea den Don Garcia Zubeldia-ren deklarazio batean azaltzen da, beste toponimo batzuen artean. Nafarroan, bestalde, <i>ezaguna</i> da toponimo nagusi moduan, <i>Markalain</i> .
-MANDUBITE	E6	NTM-n <i>mandoibai</i> , oso argi ikus daitezkeelarik burutzapen honetako osagaiak. Egungo burutzapenak, aldiz, itxura gehiago erakutsiko luke

		ondorengo osagaiekin: <i>mando + bide + -eta</i> , bukaerako bokal irekiaren asimilazio aurrerakaria eta lehen osagaiaren bukaerako bokalaren asimilazio atzerakaria suertatu direlarik. NTM-n, zehar informazioaren atalean ere, <i>mandabidea</i> jaso dute Altsasuko 1696ko dokumentu batean.
–MATEON GAZTENDEYE	D6	Ez da ageri beste dokumentuetan. ‘Mateoren gaztaindegia’ da bere burutzapen formalizatu, antorponimoaren kasuan, Etxarriko hizkeran edute genitiboaren bilakabide arrunta jarraitzen duelarik: <i>Mateoren</i> > * <i>Mateoen</i> > <i>Mateoon</i> > <i>Mateon</i> (> <i>Mation</i> ). Azken urrats hau, disimilazioa, entzun dakioke zenbait hitzuni. Bigarren osagaiak, berriz, <i>ai</i> > <i>e</i> monoptongazioa, eta <i>-degi</i> > <i>dei</i> , bokal arteko herskari belarearen galera jasan ditu.
–OPO(R)O	C6	Daradarkaridun burutzapena jaso dute NTM-n eta baita mapan ere. Dokumentazioa ere ugari dago: <i>oporo</i> (1696-1701-1706-1887-1893-1915), <i>oporro</i> (1915), <i>oportu</i> (1915). Egungo burutzapen hedatuena dardarkari gabea izango genuke, batez ere deklinabideko morfemaren eranstsitakoan: <i>opoorra</i> (oporora), <i>opooko</i> , <i>opoon</i> , ... Hala ere, beste aldera ere entzun daitezke horietako zenbait.
–OPOLIN Opolingo bixkerra	F6	NTM-n <i>opolongo bizkarra</i> dago jaso. Egun, dagoeneko <i>ez</i> dago toponimo eratorrian aipatzen den ‘bizkar’ edo muinoa, Utzubar entrepesaren harrobia bertaraino iritsi eta jan baitu. Egokiago litzateke, beraz, orain <i>opolingo txulo</i> -z hitz egitea.
–POTTOZULO	E6	Horrela ageri da NTM-n, eta dokumentaturik, aldiz, <i>pochozulo</i> (1934). Herria eta ibai arteko malda edo zuloa da toponimo honen eremua, eta seguru aski, <i>putzu + zulo</i> izan daitezke bere osagaiak, dokumentazioak erakusten digun moduan.
–PUTTOBIOKI	F6	NTM-n <i>puttuberoki</i> , eta dokumentaturik berriz, <i>puchaveroqui</i> (1868), <i>puchebeoqui</i> (1916). Gure ustean, lehen osagaia aurrekoaren berbera izango litzateke, hots, ‘putzu’, eta gainera bat, aurrekoa, herriaren erdigunearen mendebaldean dago, eta hau, hego-ekialdean. Bigarren osagaia, bestalde, NTM-n dioten moduan, ‘beroki’ izango litzateke, toki babestua, beraz.
–SANJUANZELEI	F6	Diptongo itxiera burutu gabeko burutzapena jaso dute NTM-n, <i>sanjuanzelai</i> . Arañazko mapan <i>S<sup>n</sup> Juan celaya</i> dago jaso. Arbizuko mugan dago toponimo hau, eta handik nahiko hurbil aipatu herriko San Juan basiliza.
–SANTAKII(T)Z	D6	NTM-n <i>santakiritz</i> , eta Altsasun ‘camino de

		<p><i>Santa quiri<sup>z</sup></i> ere jaso dutela aipatzen dute. <i>Santa</i> + <i>kurutz(e)</i> izango lirateke bere osagaiak, ondoren <i>u – u &gt; i – i</i> bokal txandaketa eta bokal berdinen arteko dardarkariaren galera suertatu direlarik.</p>
<p>–SOOBERTA Soobertatxiki</p>	<p>F5-6 F-5-6</p>	<p>NTM-n eta mapan <i>soroberrieta</i>, eta azken honetan <i>solabierrieta</i> ere bai. Eta dokumentaturik: <i>soraberrieta</i> (1652-1696-1702-1709), <i>soroberrita</i> (1893), <i>soroberrieta</i> (1893), <i>soroberta</i> (1893), <i>sorogerrieta</i> (1893), <i>soroverrieta</i> (1893), <i>sorobarte</i> (1893), <i>soloberta</i> (1893), <i>soroberte</i> (1893), <i>soloberrieta</i> (1915). <i>Soro</i> + <i>berri</i> ematen dituzte osagaitzat NTM-n, ohikoak direla euskal toponimian gaineratuz, baina guri harritzekoa egiten zaigu izenondoaren azken bokala galtzearena morfema eratorlea eransterakoan. Bestalde, <i>soro</i> + <i>berta</i> osagaiek ere izango lukete zentzua, herri gunetik oso hurbil dagoen eremua baita. Honetaz gain, garai batean norbait non egon zitekeen galdetu eta erantzuna ez genekienean, <i>fandalaberta</i>-n (<i>joan</i> + <i>dela</i> + <i>berta</i>) zegoela esaten zen.</p>
<p>–TORREMONIE</p>	<p>E6</p>	<p>Ez dago jasorik ez NTM-n, ez mapan. <i>Torre</i> eta <i>muno</i> dira, seguru aski, bere osagaiak. Lehen, hortzetako herskari ahostunarekin ere entzun daiteke, eta bigarren osagaian badirudi bokal txandaketa gertatu dela: <i>u – o &gt; o – e</i>.</p>
<p>–UBIYERTE</p>	<p>C-D6</p>	<p>NTM-n <i>ubitarte</i>, eta dokumentaturik: <i>ubitarte</i> (1704-1840-1893-1915), <i>ubillarte</i> (1915). <i>Ur</i> + <i>biyerte</i> izango lirateke bere osagaiak, konposaketan lehen osagaiak dardarkaria galdu duelarik. Bigarren osagaia, ‘bitarte’, horrela erabiltzen da herriko hizkeran, beraz, ‘ur bitarte’ adieraziko luke Arakil ibai ondoko toponimo honek.</p>
<p>–USTIYE Ustiyebarnekue</p>	<p>F5</p>	<p>Bai NTM-n, bai Arañazko mapan <i>ustia</i> dago jaso, eta dokumentaturik lehenean: <i>ustia</i> (1702-1709-1765-1893-1915), <i>uztia</i> (1893). Ezaguna da Sakana erdialdean <i>uts</i> eta <i>uds</i> direla ‘ur’-aren burutzapenak, eta toponimo honetan, seguru aski, <i>uts</i> + <i>-tegi</i> izango genituzke osagaiak, ondorengo bilakabidea izango zuelarik: <i>uts</i> + <i>-tegi</i> &gt; <i>ustegi</i> &gt; <i>ustei</i> &gt; <i>ustii</i> &gt; <i>usti</i>, eta ondoren, mugatzerakoan, <i>usti</i> + <i>-a</i> &gt; <i>ustiye</i>, bukaerako bokalaren asimilazioa eta guzti. Arakil ibai ertzean dago, bestalde, toponimo hau. Toponimo eratorriak ibaiaren urruntasunari egiten dio erreferentzia, ‘lehorrean’ barrura (<i>barneko</i>) sartzen delarik.</p>

-UTZUBER Utzubertxiki	F-G6-7 F6	Kasu honetan ere, bi dokumentuetan burutzapen berbera jaso dute, <i>utzuar</i> , horrela dokumentaturik 1981ean, eta <i>uzubar</i> (1893). Nafarroako Artxibategi Orokorreko dokumentu batean, hala ere, <i>ucuar</i> ageri da. Ohikoa dugu, bestalde, Sakana erdialdeko hizkeretan, <i>u</i> -ren ondorengo <i>b</i> kontsonantearen epentesia, eta baita bokal itxiek, <i>i-u</i> , eragindako asimilazioa.
-XAARMIÑETA	E6	NTM-n <i>sagarminñeta</i> jaso dute, eta dokumentaturik ere horrela agertzen dute (1893-1900-1927), eta <i>sarmiñeta</i> (1927). <i>Sagarmin</i> + <i>-eta</i> dira bere osagaiak, baina egungo burutzapenean bokal arteko herskaria eta sudurkariaren palatalizazioa suertatu da. Ez da ulertzekoa burutzapen formalizatuan zergatik jasotzen den sudurkaria palatalizaturik.
-ZENGITTU	D6	NTM-n <i>zangitu</i> eta mapan <i>cenguitu</i> dago jasorik. Eta dokumentaturik: <i>zanguitu</i> (1696-1765-1893-1915), <i>zamguitu</i> (1701), <i>zaingoitu</i> (1702), <i>zainguitu</i> (1705-1840-1915), <i>zaguitu</i> (1893). Badirudi <i>zain</i> dela lehen osagaia, hain ohikoa den bilakabidea burutu delarik: <i>ai</i> > <i>ei</i> ( <i>zain</i> > <i>zeiñ</i> ).
-ZUGARRETA	E6	Horrela ageri da NTM-n eta baita dokumentatua ere (1728), baina ez dago jasorik mapan. Azken hamar urteetan hasi da erabiltzen toponimo hau, ‘casas baratas’ auzoari izen hau xe jarri zitzaionetik, hain zuzen, R. Karasatorrek aurkitu eta gero. ‘Zumar’-en lekua adieraz lezake, eta egia esan, <i>zumar</i> ugari izan da duela gutxi arte, Andre Mari ermitaren ondoan, toponimoa egokitu den eremuan.
-ZIMURDIÑETA	D6-7	NTM-n eta mapan <i>zumurdiñeta</i> , eta dokumentaturik ere horrela gehienbat: (1696-1884-1893-1915), <i>zumurdineta</i> (1718-1893-1915), <i>zumurdizeta</i> (1719), <i>zurmudiñeta</i> (1893), <i>zumardiñete</i> (1893), <i>zumordiñeta</i> (1893), <i>zumorduñeta</i> (1893), <i>zumerdiñeta</i> (1915). Egun bi eratara entzun daiteke herrian: <i>zimirdiñeta-zumurdiñeta</i> . Eta Lizarragabengoan ere, toponimo bera, guk jarritako moduan burutzen dute. <i>Zuma</i> + <i>urdin</i> + <i>-eta</i> izango lirateke bere osagaiak.
-ZURKILLOKO ERREKA	E-F6	Horrela jaso dute NTM-n, eta dokumentazioan: <i>zurquilloa</i> (1675), <i>zurquilloa</i> (1701), <i>zurquillua</i> (1766), <i>zurloquia</i> (1893). Herriko hizkeran ere erabiltzen zen, garai batean behintzat, hitz hau xe, ‘zikoitz’ edo ‘zeken’ adierazteko, eta agian, horixe bera, adieraz lezake toponimoak ere, errekaen ‘zikoizkeria’, inoiz ez baitu ur gehiegirik eramaten, baina hori bai, inoiz ere ez da erabat lehorturik ageri.



e) Sakanako autobidetik Urabasarainoko eremuko toponimoak:

-AITZETA	C-D8	Ez dator ez NTM-n, ez mapan. Urbasa eta <i>Barga</i> bereizten dituen malkordegia izango litzateke toponimo honek adierazten duena, Urbasa mendi puntako haitzak edo malkor-rak, beraz.. (H)aitz + -eta dira bere osagaiak, eta Bakaikutik Lizarragarainoko eremua harapatzen du.
-AIZLUMEPE	D8	Horrela dator jasoia NTM-n, eta dokumentaturik: <i>aizlumazpe</i> (1882), <i>ailumepe</i> (1882). (H)aitz + <i>luma</i> + -pe dira bere osagaiak, bigarrenaren kasuan asimilazio aurrerakaria gertatu delarik. Aipagarria litzateke, bestalde, adieraztea egungo hizkeran <i>plume</i> eta ez 'luma' erabiltzen dela.
-AMARRITURRITEKO Goiko itturriama Beko itturriama	D8 D8 D8	NTM-n <i>amarriturrietako erreka</i> , eta "las diez fuentes" itzultzen dute. Ondorengoak dira bere osagaiak: (h)amar + <i>iturri</i> + -(e)ta, eta zenbatzailearen kasuan, badirudi 'hamar'-ek kasu honetan ugaritasuna edo aniztasuna adierazten duela, 'hamaika' edo 'bost'-ek bezala, eta ez kopuru zehatza. Bestalde, hortzetako herskari ahoskabea palatalizaturik ageri zaigu, eta atzizki eratorlea, berriz, asimilaturik. Bi toponimo eratorri edo txiki hauek hemen jarri baditugu, eremu berdinean kokatzen direlako izan da, eta gainera, askotan, nahasketak sortu dute haien osagaiak direla eta: <i>iturri</i> + <i>ama</i> ( <i>amar</i> + <i>iturri</i> toponimo nagusiak). Ez dago dudarik bi hauek ura hartzen den lekuari egiten diotela erreferentzia, jatorriari ( <i>ama</i> ) beraz, eta besteak, esan dugun bezala, <i>iturri</i> ugaritasunari.
-ARKUETA	E7	Horrela ageri da NTM-n, eta dokumentaturik: <i>arcoseta</i> , <i>arcoeta</i> , <i>arcoreta</i> , <i>acheta</i> , <i>arcueta</i> , <i>arcoetas</i> , guztiak 1893an. 1786 urtean urari bidea egin zitzaion 33 'arku'-ren bidez, eta hori adieraziz geratu zaigu toponimo hau.
-ARPE	C7	Ez dator ez NTM-n, ez mapan. (H)arri + -pe dira, seguru aski, bere osagaiak, Urbasako gain edo puntako malkor edo 'harri'-ei erreferentzia egingo liokeelarik.
-ARRIGORRI Arrigorriko txabala	D-E7 D-E8	NTM-n eta Arañazko mapan <i>arrigorria</i> dator, mugaturik beraz, eta nabariak dirudite bere bi osagaiak: (h)arri + <i>gorri</i> . Oso ugaria da dokumentazioa: <i>arrigorriaga</i> (1696-1701-1704-1765), <i>arrigorria</i> (1893-1981). Eratorriari dagokionez, berriz, gogoratu 'zabala'-ak 'zela' adierazten duela gure herriko

		toponimoan, eta hasierako txistukaria afrikaturik agertzen zaigula.
–ARTOLA Artolabuu	D7 D7	Horrela dator NTM-n, baita dokumentaturik ere (1706-1709-1893). Ertaroko herri galdua izango genuke R. Karasatorreren arabera (1993), ‘ <i>Konzezio</i> ’-ko (“Concepción”) baseliza lekuko moduan geratu zaigularik, eta toponimiaz gain, abizen moduan ere geratu zaigu herrian. Toponimo eratorrian, bokal berdinen arteko dardarkari xamurra galdu da.
–ARTXULO Artxuloko bixkerra	E8 E8	Hau ere horrela ageri da NTM-n, leize edo ‘kueba’ adierazteko erabiltzen dela gaineratzen duelarik. ( <i>H</i> ) <i>arri</i> + <i>zulo</i> izango lirateke bere osagaiak, lehenak Urbasa puntako malkorrei egingo liekeelarik erreferentzia, eta bigarrenak, berriz, <i>Barga</i> -n toki ‘zulo’-a delako toponimo honen eremua, hasierako txistukaria afrikaturik agertuz.
–ARZABAL	D8	Ez dator ez dokumentu batean, ez bestean. Aurrekoak bezala, berrito ere, ‘harri’-ari egiten dio erreferentzia toponimo honek, aurrekoetan aipaturiko malkor tarte horretan irekitzen den ‘zabala’ edo zelaia izango genukeelako. Urbasa gain-gaineko toponimoa da, eta bertan ‘meyetza’ jartzen da urtero.
–ASKA Askageñe Askape	D8 D8 D8	Modu berean jaso dute NTM-n, baina <i>gambela</i> -ren esanahia ematen diote hemen, eta Etxarrin, <i>Barga</i> -ko lur azalean dagoen berezko hausturari esaten zaio. Zauri handiei ere horrela esaten diegu herrian, haragi zati bat eta guzti galtzen dugunean, edo irekidura handia denean. Bi toponimo eratorriek, ederki asko adierazten dute haien kokapena.
–ASTATEITE	F7	Ez dator ez NTM-n, ez mapan. Bere osagaiak, seguruenik, <i>asto</i> + <i>-tegi</i> + <i>-(e)ta</i> izango genituzke. Lehen atzizki eratorlearen herskari belare ahostunaren galera suertatu da, eta bigarrenean bokal irekiaren asimilazioa.
–AUNTZESOO Auntzesooko axkoye	D7 C7	NTM-n <i>auntzasoro</i> , bokal asimilaziorik kontuan izan gabe. Bigarren osagaiak bokal berdinen arteko dardarkari samurra galdu du. Toponimo eratorriak, berez sortutako landare tokia adieraziko luke (Ikus 11. orrialdeko <i>Baxate</i> toponimoa).
–AXAIBUZTENDEI	D8	NTM-n <i>axaribuztandegi</i> . <i>Azeri</i> + <i>buztan</i> + <i>-egi</i> dira bere osagaiak, baina <i>axaibuzten</i> -a, landare baten izena da, beraz, <i>axaibuzten</i> to-

		<p>kia adierzten du toponimo honek. Lehen osagaiari dagokionez, bokal arteko dardarkariaren galera eta <i>ei</i> diptongo bigarrenkariaren irekiera, <i>ei</i> &gt; <i>ai</i>, gertatu dira. Bigarren osagaian, asimilazioa suertatu da: <i>buztan</i> &gt; <i>buzten</i>.</p>
-AXAIZULOTA	E-F7	<p><i>Axarizuloeta</i> NTM-n, eta dokumentaturik: <i>aserizulota</i> (1715), <i>aisarizulueta</i> (1765), <i>asarizulueta</i> (1840-1868), <i>asarizulota</i> (1893-1915), <i>asarizuleta</i> (1893), <i>asarizulo</i> (1893), <i>aisarizuloeta</i> (1900). Arañazko mapan, toponimoaren eremuan <i>ariazulota</i> jaso dute, lehen kontsonantea nahasi dutelarik seguru aski, ondoren metatesia burutuz. Oraingoan, 'azeri' animalia dugu lehen osagai moduan, eta gordeleku edo 'zulo' ugari zegoela toponimo honen eremuan adierazten du.</p>
-BARGA	8	<p>Sakana osoan erabiltzen den toponimoa da hau, haranaren hegoalde guztia, Urbasa eta Andia mendien magaleko baso eremua. Mitxelena (OEH, IV, 32 ) horrela du jasorik: "(G-nav). (...) <i>Barga handia jek</i>, hay una gran vertiente o derrumbadero (...) <i>Bargi</i>, la pendiente. <i>Barga gaiztu</i>, <i>gerba gaiztu</i>. <i>Barga gainin</i>, en lo alto del derrumbadero (...) (Ergoyena), lugar rocoso; pendiente muy pronunciada".</p>
-BASARETA	D8	<p>Modu berean ageri da NTM-n. <i>Baso</i> + <i>sare</i> + <i>-(e)ta</i> lirakeke bere osagaiak, dagoeneko ezagunak ditugularik guztiak.</p>
-BIERREKATARTIE	D8	<p>Ez dator jasorik aztertu dokumentuetan. Osagaiei dagokienez, begibistakoak ditugu: <i>bi</i> + <i>erreka</i> + <i>tarte</i>.</p>
-BIORTESIYE Arbizuko biortesiye Etxarriko biortesiye Biortesiko erreka	G6 G6 G7 G7	<p>Ez dator ez NTM-n, ez mapan. <i>Be(h)or</i> + <i>(h)esia</i> dira bere osagaiak, elkarretan epentesi moduan tartekatzen den hortzetako herskari ahoskabearen presentzia eta guzti. Izan dira garai batean eremu berdinean <i>'itxesí'</i>-ak ere, 'idi hesiak' hots. Hauek beraz, 'behor'-endako hesiak izango genituzke, behorak ez sartzeko eremu itxiak.</p>
-ELBEIKO TXULO Elbeiko iturri Elbeiko malda	C7 C7 C7	<p>NTM-n <i>elbegia</i> eta <i>elbegiko zulo</i>, eta dokumentaturik horrela eta <i>elbei</i>, biak 1821ean. Karasatorrek dioskunez, ertaroko herri galduetariko bat izango genuke, ondoan Santabarbara eta Sangregorioko baselizak daudelarik. Aipatzekoa, berriro, bokal arteko herskari belare ahostunaren galera, eta hasierako txistukariaren afrikazioa.</p>
-ENFERMOGUUTZE	D7	<p>NTM-n <i>enfermogurutze</i> jaso dute, eta dokumentaturik berriz, modu berean eta <i>enfermo-</i></p>

		<i>gutz</i> 1934an. Oso argiak dirudite bi osagaiak, bigarrenaren kasuan, berriz ere, dardarkaria galdu delarik. Lehena, aldiz, gazteleratik hartua izango genuke, garai bateko norbaiten izengoitia izan daitekeelarik.
–EPERTEITE Eperteiteko erreka	E7-8 E-F7	NTM-n <i>epertegieta</i> jaso dute, bukaerako bokalaren asimilazioa eta herskari belare ahostunaren galera kontuan izan gabe: <i>eper</i> + <i>-tegi</i> + <i>-(e)ta</i> . NTM-n toponimoaren eremua ‘lugar de perdices’ bezala daukate, baina Etxarriko hizkeran, ‘lugar de codornices’ izango litzateke, besteak <i>baseperrak</i> baititugu.
–ERREGENBIDEZAR	D7	NTM-n <i>erregeen bidezar</i> jaso dute, eta dokumentaturik <i>erregebizar</i> (1781). <i>Erregearen</i> + <i>bide</i> + <i>zar</i> dira bere osagaiak, ‘camino real’ adierazten duelarik. Lehen osagaiaren bilakabidea hauxe litzateke: <i>errege</i> + <i>aren</i> > <i>erregeren</i> > <i>erregeen</i> (dardarkariaren galera) > <i>erregeen</i> (V <sub>1</sub> V <sub>1</sub> > V <sub>1</sub> ).
–ERREKABU(R)U	E7	Horrela dago jaso NTM-n eta determinaturik mapan eta dokumentazioan: <i>errecaburua</i> (1696-1702-1893-1915), <i>recaburua</i> (1915). Argiak dira, oraingoan ere, osagaiak, eta bigarrenaren kasuan bi eratara entzun daiteke, dardarkaria duelarik eta ez duelarik.
–ERREKALIOR	E7	Bigarren osagaia disimilatu gabe jaso dute NTM-n, <i>errekaleor</i> , eta dokumentaturik berriz: <i>errecaleor</i> (1696-1893-1915), <i>errecaleorra</i> (1704), <i>errecalior</i> (1893-1915). Etxarriko hizkeran ohikoa da <i>-eo-</i> > <i>-io-</i> disimilazioa, aipatu bokalek tartean kontsonante erokorra dutenean: <i>bior</i> (behor), <i>biotu</i> (be(r)otu), <i>gio</i> (ge(r)o) ...
–ERROTEI	D7	<i>Errotegi</i> NTM-n eta <i>errotegui</i> mapan. Dokumentaturik: <i>errotegui</i> (1696-1730-1765-1893), <i>errotey</i> (1893), <i>errotaya</i> (1893), <i>errotegi</i> (1893), <i>errotari</i> (1893), <i>errotay</i> (1893), <i>errotegui</i> (1893-1915). <i>Errota</i> + <i>-tegi</i> izango lirateke bere osagaiak, NTM-k duela gutxi errota zaharraren ondarrak ikus zitezkeela baitio.
–FAATXABAL	D8	Ez dator jasorik NTM-n, eta mapan ere ez, seguru aski, Urbasako eremuan kokatzen duelako toponimo hau, Etxarriko hegoaldeko muga, hain zuzen ere. <i>Fago</i> + <i>zabal</i> dira, dardarik gabe, bere osagaiak, eta lehenago esan dugun moduan, <i>-o-z</i> bukatutako lexemek <i>-a-z</i> txandakatzen dute bokal hau hitz elkarketan, lehen osagaiaren azken hizkia denean. Bestalde, ikusi dugu orain baino lehen, hitz hasierako txistukaria afrikatzen, eta baita bokal arteko herskari belare ahostuna galtzen.

-FANDALAMIKEL	D7	NTM-n <i>Jaun Done Mikel</i> , eta dokumentaturik: <i>juandalamiguel (1893)</i> , <i>zandalamiguel (1893)</i> , <i>juandolamigue (1893)</i> , <i>zandalamigue (1893)</i> , <i>juan de la miguel (1893-1915)</i> . Ez dago dudarik jaso dugun burutzapena horrelaxe ahoskatzen dutenik herritarrek. Oso ohikoa dugu, bestalde, herriko hizkeran, eta baita Sakanakoan, <i>j/fftxandaketa: fan (joan), fale (joare), Fantxonekoa (Juantxonekoa), forratu (jorratu) ...</i>
-GOIKO BIDEBERRI	D8	Horrela dago jasorik NTM-n, eta <i>Barga</i> -ko goiko aldean Urbasara doan bidea adierazten du. <i>Bideberri</i> Sakanan 'errepide'-a izango genuke.
-GOIKOETXE	E-8	NTM-n <i>goikoetxeko illorra</i> ageri da, eta <i>illor</i> -a txabola moduko eraikuntza dela diote. Gogoratu hala ere, guk toponimo hau beste eremu batean kokatu dugula, bigarrenean hain zuzen, hots, Gipuzkuko errepidetik Arakil ibairaino hartzen duen eremuan. Gure informanteek, <i>ellor</i> -a dela esan digute, eta <i>illor</i> -a, berriz, umea galtzeari esaten omen zaio. Bestela, <i>goikoetxe Artxulo</i> -ko eremuan dagoen base-riari esaten zaio Etxarrin.
-ILLERA Illerako txabola	D-E7 D-E7	Asimilaturik gabeko burutzapena jaso dute NTM-n eta mapan ( <i>yllarra</i> ), eta horrela ere dokumentazioan: <i>yllarra (1696-1701-1730-1765)</i> , <i>yllarra (1893-1915)</i> . Garbi dago 'ilar'-ari egiten diola erreferentzia. Etxarriko dermioan, hiru txabola daude aspaldidanik, ekaitz garaian nekazariak babestu ahal izateko, eta horietako bat dugu <i>illerrakoa</i> .
-ILLERRABAZTAR	D7	Berriro ere, asimilatu gabe dago jasorik NTM-n. Toponimo nagusiaren izaera eman diogu, oso ondo bereizia izan delako betidanik aurrekoarengandik, batez ere garai bateko futbol-zelaiak (70 hamarkadan) toponimo honen izena izan zuelako.
-ILLERRAZABAL Illerrazabal buube	D7	Aurrekoen kasuan bezala ageri da NTM-n eta mapan, eta honek ere toponimo nagusien izaera jaso du, eremuari dagokionez ere, zertxobait aldendurik aurkitzen baita beste biengandik. Dokumentaturik ere horrela ageri da (1696-1927). Hala ere, 'ilardi handia' edo 'zabala' adierazten digu. Eratonriak <i>buru + -a</i> erantsi dio, 'gain'-a edo adieraziz. Gogoratu <i>-u-z</i> bukaturiko lexemek <i>b</i> kontsonantearen epentesia eta asimilazioa jasaten dutela determinatzaile mugatzailea eransterakoan: <i>mundu + -a &gt; mundube, mutu + -a &gt; mutube, porru + -a &gt; porrube</i> .

<p>–IÑURRI Iñurriko ziera</p>	<p>F7 F7</p>	<p>Horrela NTM-n eta <i>yñurria</i> mapan, eta dokumentaturik: <i>iñurri</i> (1675), <i>iñurrea</i> (1675), <i>iñurria</i> (1691-1766), <i>inurria</i> (1730), <i>yñurria</i> (1893), <i>yñurri</i> (1893), <i>yñarria</i> (1893), <i>yñorri</i> (1893), <i>yñurrio</i> (1893), <i>yñoria</i> (1893). Ez da erabiltzen esparru osoan ‘inurri’ burutzapena, ‘txingurri’ baizik, horregatik suertatzen da berezia toponimo hau. Toponimo eratorrian, bigarren elementua ‘ze-harra’ daukagu, <i>zierra</i> burutzapen disimilatu, eta ‘malda’-ren esanahia du.</p>
<p>–IRULBE</p>	<p>D7</p>	<p>Horrela dator NTM-n eta <i>yrulbea</i>, berriz, mapan. Dokumentazioan: <i>irulbea</i> (1696-1701-1706), <i>yrubea</i> (1893), <i>yrurbea</i> (1893), <i>yrumbea</i> (1893), <i>yrurbia</i> (1915). Bigarren osagaia, seguru aski, <i>-be(he)</i> izango genuke eta ez <i>b(ag)e</i>, honek azentuaren intentsitatea berarekin baitarama, eta toponimoaren kasuan paroxitonoa dugu burutzapena. Baina lehenengo askoz ere zailagoa zaigu identifikatzen: <i>ir(a)uli?</i></p>
<p>–ITTURBEI</p>	<p>D7-8</p>	<p>NTM-n <i>iturbegi</i> jaso dute, eta dokumentaturik ere, ia modu berean ageri da: <i>iturbegui</i> (1882). Arraroa bada ere, Etxarriko hizkeran ez da horrelakorik gertatzen, ‘begi’ lexemak herskari belare ahostuna galtzen du burutzapen honetan. Bestalde, ohikoa denez, hortzetako herskari ahoskabea palatalizaturik ageri zaigu.</p>
<p>–ITTURGEIZTO Itturgeiztoko erreka</p>	<p>D7 D7</p>	<p><i>Iturgaizto</i> jaso dute NTM-n, eta dokumentaturik: <i>yturgaitu</i> (1893), <i>yturgaiztu</i> (1893), <i>yturgaistu</i> (1893), <i>yturgaito</i> (1915), <i>iturgaizto</i> (1927), <i>iturrigaizto</i> (1927). Ez dira edo ziren bertako urak oso osasuntsuak, nonbait. Egungo burutzapenean, hortzetakoaren palatalizazioa eta bigarren osagaiaren <i>ai &gt; ei</i> diphongo itxiera suertatu dira.</p>
<p>–ITTURTXAR Iturtxargo itturriye</p>	<p>C8 C8</p>	<p>NTM-n <i>iturtxar</i>. Aurrekoaren sinonimoa dirudi esanahiaren aldetik, edo bestela ez dela inondik inora ere, ez bat ere aipagarria, ez handia. Toponimo eratorrian errepikapena daukagu, eremuari izena eman dion ‘iturri’ a berriro ageri baitzaigu lekuaren zehazpenean.</p>
<p>–ITTURTXIKI</p>	<p>D-E7</p>	<p>Modu berean dator NTM-n, burutzapen dokumentatu ugariarekin: <i>iturrichiQUI</i> (1704), <i>iturrichia</i> (1704), <i>iturrichiQUIA</i> (1707-1765), <i>yturchiqui</i> (1893), <i>turrichiQUI</i> (1893), <i>yturchiquia</i> (1915), <i>iturchiqui</i>, <i>fUENTE</i> (1981). Duela gutxi arte izan da bertan iturriaren aska edo ganbela, eta ez zen batere txikia.</p>
<p>–ITXERE</p>	<p>F7</p>	<p>NTM-n <i>itxare</i> jaso dute, asimilazioa kontuan izan gabe, eta dokumentazioan: <i>ytcharea</i></p>

		<p>(1893), <i>ytsarea</i> (1893). Gure ustean <i>idi</i> + <i>sare</i> dira bere osagaiak, lehen osagain horelako bilakabideak, azken bokala galdu eta hortzetako herskari ahostuna ahoskabe bihurtu, izaten baititu hitz elkarketan: <i>idi</i> + <i>zain</i> &gt; <i>itzai</i>, <i>idi</i> + (<i>h</i>)<i>esi</i> &gt; <i>itsesi</i>. Azken honi dagokionez, begira R. Karasatorrek helarazi digun Nafarroako Artxibategi Orokorreko dokumentu (1617) honek dakarrena: “<i>A la tercera pregunta dixo que refiriendosse a lo que dho en su primera depossicion y sin apartarse en cosa ninguna save es verdad este tgo que al dho termino y endrecera de Ucuar a tenido y tiene por su nombre en bascuence ascolichasia y este vocablo ichasia es visto claramente de por ser bedado boyaral ...</i>” Idi edo aberendako hesi edo ‘akotatua’ izango genuke beraz azken hau (idi eta aizkorarentzat ere bai, aurrekoa), eta ‘idiak biltzeko tokiak’ berriz, toponimo honen adierazpena.</p>
–KLAUDION USOTXABOLA	C8	<p>Ez dator ez NTM-n, ez mapan. Betidanik ezagutu ditugu ‘usotxabolak’ (ehiza ‘puesto’-ak zuhaitzetan) <i>Barga</i> aldean, eta horietako bat izango litzateke Klaudio delakoarena. Bestalde, gogoratu edute-genitiboaren morfemaren bilakabidea: <i>klaudio</i> + <i>-ren</i> &gt; <i>klaudioen</i> &gt; <i>klaudioon</i> &gt; <i>klaudion</i>.</p>
–KONZEZIO	D7	<p>NTM-n <i>Kontzepzio ermita</i> eta mapan <i>Concepcion bidea</i> agertzen dira jasorik, eta dokumentazioan: <i>conzepcion</i>, <i>ermita de la</i> (1709), <i>concepcion</i> (1893-1981). Egungo hizkeran <i>n</i>, <i>l</i> eta <i>r</i> ondoan frikarien alde neutralizatzen dira kontsonante txistukariak: <i>franzesa</i>, <i>falsue</i>, <i>bizerzube</i>, ...</p>
–KOSTUEL Kostuelgo itturriye Kosatuelgo larrie	D-E8 D8 D8	<p>Horrela ageri da NTM-n eta baita dokumentaturik ere (1807). Gure ustean, lehen osagaia <i>kosti</i> &lt; <i>koosti</i> &lt; <i>korosti</i> ‘gorosti’-a izan daiteke, baina bukaera antzemanezina zaigu. Azken eratorriaren bigarren osagaia, <i>larrie</i>, ‘pentze’ edo belardia izango genuke.</p>
–LARRUTU	D8	<p>Horrela ageri da NTM-n eta Arañazko mapan <i>narritua</i> berriz. Dokumentaturik: <i>larrutua</i> (1699-1701-1707-1730-1893). Partizipio honek, azala edo larrua kentzea adierazten du hizkera arruntan, eta toponimo moduan, seguru asko, zuhaitz edo landarerik gabeko baso eremua adieraz dezake.</p>
–LEGARBE	E7	<p>Modu berean NTM-n eta mugaturik mapan, eta dokumentazioan: <i>legarbea</i> (1701-1711-1747-1893), <i>legarbe</i> (1893), <i>legarvea</i> (1893). NTM-n gogoratzen digute <i>legar</i> ‘harea’ edo harri xehea dela, baina Zuberoan behintzat ‘zergak’ esateko ere erabili izan da, eta egia</p>

		<p>esan, <i>be</i> &lt; <i>bee</i> &lt; <i>bae</i> &lt; <i>bage</i> bigarren osagaiaren bilakabidetzat hartzen badugu, bietariko edozein esanahiarekin izango luke zentzua. Hala ere, azentuaren auziarekin egingo genuke topo berriro, ezen aurrerago esan dugun moduan, <i>be</i> ('bage') partikulak berarekin darara azentuaren intentsitatea, eta toponimo hauxe paroxitonoa dugu, '<i>irulbe</i>'-ren kasuan genioen moduan. Hartaz, <i>legar</i> + <i>be(he)</i> izan daitezke bere osagaia.</p>
-LUIKETZ	F7	<p>Ez da ageri ez NTM-n, ez Arañazko mapan. <i>Lur</i> + <i>ikatz</i> izan daitezke bere osagaiak, eta bigarrenak, bokal asimilazioa jasan duenak, kolore zentzua izan dezake, 'lur beltz edo iluna' adieraz lezakeelarik.</p>
-LUXINTXITTURRI	E7	<p>Ia modu berean ageri da NTM-n, bigarren osagaiaren hortzetako kontsonantea palatalizatu gabe, eta dokumentaturik: <i>lusinchiturri</i> (1927). 'Intsusa'-ri esaten zaio <i>luxintxe</i> Etxarriko hizkeran, beraz argi dago toponimoak adierazten duena, 'intsusa arteko iturria'.</p>
-MEIZE Meizegeñe	C8 C8	<p><i>Maiza</i> dago jasoia NTM-n eta dokumentazioan: <i>maiza</i> (1893-1915), <i>maisa</i> (1915). Zerbait hiztunen ahotan entzun daiteke diptongo itxiera burutu gabeko burutzapena: <i>maize</i>. Eratorrian, birritan gertatu da <i>ai</i> &gt; <i>ei</i> diptongo itxiera. Ondoko herrikoeak, bakaikuarrek, <i>baiza</i> ere esaten diote.</p>
-MUBAATS Mubaasbuu Mubaasgo txabola	E-F7 E7	<p>NTM-n <i>mugarats</i> eta dokumentaturik: <i>mugarreche</i> (1350), <i>mugarach</i> (1652), <i>mugaras</i> (1696-1705-1747-1893), <i>mugaraz</i> (1704). Etxarriko hizkeran ezpainetakoaren alde neutralizaturik ageri da herskari belare ahostuna, 'muga' hitzean, toponimo honetan eta beste batzutan ikus daitekeen moduan: <i>irumubeta</i> (hirumugeta), <i>mubeko itturri</i> (mugako iturri). Bigarren osagaiari dagokionez, eta lehen bi burutzapen dokumentatuei erreparatuz, hauexek izan daitezke toponimo honen osagaiak: <i>muga</i> + <i>etxe</i> eta ondorengoa, aldiz, bere bilakabidea: <i>muga(rr)etxe</i> &gt; <i>mubaetxe</i> &gt; <i>mubaetx</i> &gt; <i>mubaatx</i> &gt; <i>mubaats</i>. Lehen eratorrian, berriro 'buru' ageri zaigu, 'gain'-a adierazten duelarik, eta bokal arteko dardarkari xamurra galduta. Bigarren eratorriko txabola, <i>Illerra</i>-koaren parekoa izango genuke.</p>
-MUBEARRASOKO XENDA	C8	<p>Ez da ageri ez NTM-n, ez mapan. Berriro ageri zaigu herskariaren arteko txandaketa, <i>g/b</i>. Oraingoan Bakaikuko dermioarekiko muga adierazten du, eta 'arraso'-k zuhaitzik gabeko eremua. <i>Xenda</i>, bestalde, 'bidezidor'-a izango genuke.</p>



-MUBEKO ITTURRI	C8	Aurrekoaren ondo-ondoan. NTM-n <i>mugako iturria</i> jaso dute. Oso agerikoak dira bai osagaiak, nola esanahia.
-OKANETA	E7	<i>Okaraneta</i> NTM-n, eta gaztelerako grafiarekin dokumentaturik (1700-1886). <i>Óka(a)na</i> 'arana' da herriko hizkeran, beraz, morfema eratorlea kontuan izanik, 'aran lekua' litzateke toponimo hau. Berriro ere, bokal arteko dardarkariaren galera gertatu da: <i>okaran</i> > <i>okaan</i> > <i>okan</i> .
-POLPOLITTURRI	D7	Palatalizatu gabeko burutzapena jaso dute NTM-n, eta horrela ageri dute dokumentazioan ere: (1890-1893-1915), <i>porpoliturri</i> (1915). Lehen osagaia hitz onomatopeikoa dugu, <i>pol-pol</i> , urak egiten duen soinua adieraziz, eta bigarrena ezaguna dugu dagoeneko.
-PORTILLUE	E8	Ez da ageri ez dokumentu batean, ez bestean. <i>Portillo</i> 'langa'-ri esaten zaio, beraz sarrera edo pasa itxia adierazten du. Etxarri eta Lizarragaren arteko mugan dago 'portillo' hau.
-PORTUZAR	E8	Hau ere ez da ageri orain arte aipatu dokumentuetan. <i>Barga</i> zeharkatu eta Urbasa gaineraino daraman bide zaharrari esaten zaio, garai bateko 'galtzada'-ri, Zumalakarregik karlistadan erabilitakoari. Egun, Urbasa gainera joateko, bide honen bukaera aldean, maldatsuago baina motzagoa egiten den beste bidea dago, hortik betikoari <i>portuzar</i> esatearena.
-SANGREGORIO Sangregorioko itturriye	C-D7 D7	Horrela dago jaso NTM-n, baina ez dator eratorria. Dokumentazioan modu berean beti (1696-1701-1707-1893-1915). Bertan ermitaren hormak baino ez dira dagoeneko gelditzen.
-SANTABARBARA Santabarbarako lepue Santabarbarako ttontorra	C7 C7 C7	Aurrekoari buruz esandako ia guztiak balio du honetarako ere, soilik ez dela dagoeneko inongo eraikuntza aztarnarik gelditzen.. Eratorrien kasuan, leheneko 'lepo'-k pasabidea edo adierazten du, hots, tokirik egokiena bertaratzeko edo urruntzeko; eta era horretan, bigarrenaren magalean izango litzateke, 'tontor'-arenean hau da. Bustidura adierazkorrak izango genuke toponimo eratorri honen bigarren osagaien, seguru asko txikigarri zentzua duenak. Ez da muino handia, beraz.
-TXIÑERMUNO	F7	<i>Txiñarmuno</i> dago jasorik NTM-n, eta dokumentaturik: <i>chinermuno</i> (1880), <i>chinarmoño</i> (1893), <i>chinarmuno</i> (1893), <i>chinarmunua</i> (1893), <i>chinarmuño</i> (1893), <i>chillarmunu</i>

		(1934). Beste azalpenik gabe dator aipatu dokumentuan, eta guk zenbait heritarri entzun diogu 'sorgin lekuá' zela eremu horixe, eta <i>txiñerratxo</i> esaten zitzaioala 'sorgin'-ari herriko hizkeran. Bigarren osagaia, <i>mu(i)no</i> , bestalde azaldua dugu dagoeneko.
-TXUIXOO Txuixooko kaxkalludeye	C-D8 C-D8	NTM-n <i>txurisoro</i> ageri da, eta horiek dira bere osagaiak, egungo burutzapenean bi osagaietako kontsonante dardarkaria galdu delarik eta txistukaria palatalizatu edo sabaikaritu. Toponimo eratorriko bigarren osagaiak 'harrobi'-ari egiten dio erreferentzia, <i>kaxkallu</i> -a harri xehea baita herriko hizkeran, eta bere bilakabidea ondorengo litzateke: <i>kaxkallu</i> + <i>-degi</i> .
-UNTZIE Untzezeleye	F7 F7	Ez da ageri NTM-n, eta Arañazko mapan <i>uncea</i> dago jasorik. 'Huntze' landare igokaria izan zitekeen adierazitakoa, baina ez dugu uste horrela denik, herriko hizkeran berez <i>-a</i> bokalaz bukatutako hitza baikenuke hauxe, ondoren asimilaturik bada ere, eta ez da <i>-e-z</i> bukatutakoak bezala disimilatzen mugatzailea eransterakoan: <i>untze</i> + <i>-a</i> > <i>untze</i> , <i>aitte</i> + <i>-a</i> > <i>aitte</i> , <i>zume</i> + <i>-a</i> > <i>zume</i> , ... eta ez <i>*untzie</i> , <i>*aittie</i> , <i>*zumie</i> . Gainera, mapako burutzapenak ere <i>-e-z</i> bukatutako lexema baten aurrean gaudela erakusten du, toponimo eratorriak bezala. Honetan, berriro, bere bigarren osagian, <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo itxiera dugu.
-URDINBEI	D8	Horrela jaso dute NTM-n, eta ez da ageri ez dokumentaturik, ez azalduz. Lehen osagaia 'urdin' izango genuke, eta bigarrenak bokal arteko kontsonante erorkorren bat galdu duela ematen du, herskari belare ahostuna, <i>g</i> , seguru aski.
-ZALDUBE Zalduko txabola	F7 F7	NTM-n eta mapan <i>zaldua</i> . Nola burutzen den egungo hizkeran jakiteko, inesibo kasuko morfema singularra erantsi besterik ez da behar: <i>Zalduben yondu neiz</i> (Zalduan egon naiz). Bestalde, toponimo eratorrian ikusten da <i>zaldu</i> dela lexema, eta badirudi 'saltus'-etik datorrela, hots, latineko jatorria izango luke.
-ZAPATAÑENENKO LARRIE	D8	Ez da ageri dokumentuetan. <i>Zapatañenekue</i> Etxarriko etxe baten izena dugu, <i>zapataginekonekoa</i> izango lukeelarik bere jatorrian. Bigarren osagaia aztertu dugu behin baino gehiagotan.
-ZIERBIDE	E7	<i>Zearbide</i> NTM-n, eta dokumentatua: <i>zearbidea</i> (1701-1705-1709-1730), <i>ziarbidea</i> (1719), <i>ciarvidea</i> (1893), <i>ciarvide</i> (1893), <i>ciervide</i>

		(1893), <i>ciervidea</i> (1893). Egun ere burutzapen disimilatua entzuten da, eta bere osagaiak <i>ze-har</i> + <i>-bide</i> dira, baina adierazpen mailan, ez du ‘etorbide’-arena, ‘bihurgune’-dun bidea baizik.
-ZORROTONA	C-D8	Ez da ageri ez NTM-n, ez mapan. Urbasaraino iristen den zuhaitz eta haitz edo malkorrik gabeko <i>Barga</i> muturrari esaten zaio. Higadurak bilduriko harri xehez estalia dagoen eremuari esaten zaio horrela.
-ZUMEDEI	F7	Hau ere ez da ageri aipatu dokumentuetan. <i>Zuma</i> + <i>-degi</i> dira bere osagaiak, eta asimilazioa batetik eta bokal arteko herskariaren galera bestetik, jasan ditu toponimo honek bere bilakabidean.

## BIBLIOGRAFIA

- ARAÑAZ Elkarteko Mapa, 1882.
- BELASKO, Mikel: *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*, 2000.
- GORROTXATEGI, Mikel: *EUDEL-ekiko hitzarmena dela eta euskaltzaindiaren toponimia lantaldearen plangintza*, *Euskera*, XLIV, 1999-2, 911-919.
- KARASATORRE, Rafael: *Barranca-Burunda*, 1993. BB iruzkinetako aipamenetan.
- KARASATORRE et alii: *Etxarri-Aranatzko euskara eta Arañaz elkarteko hiztegia*, 1990.
- LIZUNDIA, J. L.: “Toponimoen ofizialtasunaz eta administrazio arteko aplikazio arazoez (i)”, *Euskera*, XLIV, 1999-2, 907-910.
- MITXELENA, K.: *Fonética Histórica Vasca*, ASJU-ren gehigarriak, 1985.
- MITXELENA, K.: *Orotariko Euskal Hiztegia*.
- NAFARROAKO GOBERNUA: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, 1991.
- NAFARROAKO GOBERNUA: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza VIII*, 1992.
- NAFARROAKO GOBERNUA: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza XII*, 1995.
- SALABERRI, Patxi: “Criterios para la normalización de la toponimia mayor de Navarra”, *FLV*, 79, 1998, 653-666.
- SALABERRI, Patxi: “Toponimia nagusia normalizatzeko irizpideak mintzagai”, *Euskera*, XLIV, 1999-2, 921-930.

## LABURPENA

Artikulu honetan, Etxarri-Aranatzen gaur egun bizirik dirauten toponimoak jasotzeaz gain, haien dokumentazioaren berri eman eta, gehienen kasuan, jatorria edota esanahia ere azaltzen ahalegindu gara. Orain arte egin diren bilketa eta azterketak kontuan izan ditugu, baina helburu nagusia, bai toponimo kopuruari nola transkripzioari dagokionez, egungo erabilerara lotzea edo atxikitzea izan da. Beraz, 2000. urteko Etxarri-Aranazko leku-izenen bilduma izango genuke esku artean duzuen hauxe; bilduma zehatz eta osoa, bestalde, bertan jaso diren burutzapenak, informatzaileenaz gain, herriko toponimian ‘adituak’ diren beste hainbaten kontrastea ere izan baitute.

## RESUMEN

En el presente artículo, además de recoger los topónimos en uso de Etxarri-Aranatz, nos hemos propuesto recoger la documentación referida al respecto, amén de explicar, en la mayoría de los casos, el origen y/o significado de los

mismos. Para ello, hemos contado con las diferentes recogidas y estudios de los topónimos realizados hasta ahora, pero el objetivo primordial, tanto en lo referente a la cantidad como a la transcripción de los mencionados topónimos, ha sido el de ceñirse a las formas en uso en la actualidad. Así pues, el presente es un trabajo que recoge los nombres de lugar de Etxarri-Aranatz tal y como se utilizan en el año 2000. No obstante, se trata de una recogida concreta y completa, puesto que el conocimiento de los informantes se ha contrastado con el de otros tantos ‘expertos’ de la localidad.

#### RÉSUMÉ

Nous avons voulu, dans l'article ci-présent, en plus de recueillir les toponymes en usage d'Etxarri-Aranatz, recueillir la documentation se référant à ce thème, pour expliquer, dans la plupart des cas, l'origine et/ou la signification de ces derniers. Pour cela, nous avons pu compter sur les différents recueils et études des toponymes réalisés jusqu'à ce jour, mais le principal objectif, tant en ce qui concerne la quantité que la transcription des toponymes mentionnés, fut celui de nous limiter aux formes en usage dans l'actualité. Ainsi donc, le travail ci-présent recueille les noms de lieu d'Etxarri-Aranatz, comme on les utilise en l'an 2000. Cependant, il s'agit d'un recueil concret et complet, car les connaissances de ceux qui nous ont informés ont été contrastées avec celles d'autres nombreux “experts” de la localité.

#### ABSTRACT

In addition to collecting the toponyms used in Etxarri-Aranatz, the aim of the present study was also to gather documentation about these and to explain, in most cases, their origin and/or meaning. Although the different collections and studies of toponyms already carried out were used, the main objective in terms of both the quantity and transcription of these was to try to reflect the forms now in use. The present study, therefore, collects the Etxarri-Aranatz' place names and tries to explain how they are used in the year 2000. This is, however, a collection which can be described as both specific and complete, given that the knowledge of the sources has been contrasted with that of a great many other local “experts”.